

# BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA  
+ GUKA ALDIZKARIA



MAITE AIZPURUA

**ERRESISTENTZIAK  
TAULA  
GAINEAN**





ENDAÑETAK  
ez du saldu  
bakarrik egiten,  
arreta ere  
ematen du

[www.endañetazumaiá.com](http://www.endañetazumaiá.com)

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

**Tien21**



# Casa BASUSTA

LORATEGIA

*Lorazaintza zerbitzuak | Oparitzeko lore sortak  
Hileta eta ezkontza zerbitzuak | Apainketa eta dekorazio osagarriak*

***Etkez etxeko zerbitzua!***

Santiago auzoa, 18  
943-86 26 11

[www.floristeriabasusta.com](http://www.floristeriabasusta.com)



# BALEIKE 307

2021-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA



## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Onintza Lete Arrieta  
*Fruituak dastatzeko unea*
  - 6 **Izpiak eta hizkiak** Arnaitz Rubio  
Aprea  
*Amesgaiztoa*
  - 8 **Hitz tantak** Mireia Galarza Bastida  
Aritz Eizagirre
  - 10 **Hainbat aburu** Silvia Carrizo  
Hernandez  
*Egiturazko indarkerien aurkako  
migrazio-ingurune seguruak*
  - 11 **Errematea** Sara Iburguren  
Denbora
  - 13 **Elkarrizketa** Maria Maya  
Manterola  
*Maite Aizpurua: Korrika egiteko  
makina deabrua da niretzat*
  - 20 **Erretratua** Juan Luis Romatet  
Eloi Urbieto, taxilaria
  - 24 **Bazkidetza**
  - 25 **Heziketa** Mireia Centeno
- Nola erabili pantailak haurren  
onerako?*
- 26 **Plazan bazan**
  - 29 **Osasuna** Rosa Azkue *Bihotz  
gutxiiegitasuna (II)*
  - 32 **Zientzia eta ingurumena** Markel  
Peñalba  
*Etorkizuneko energia II:  
Berriztagarrien iraultza*
  - 36 **Orduan bai** Imanol Azkue Ibarbia  
*Agirietan ia ageri ez diren*
  - 39 **Erreportajea** Distira Argazki  
Elkartea  
*Pandemiaren irudiak*
  - 44 **Literatura** Antton Peñalba  
*Mundu bati kanta*
  - 45 **Nire txanda** Maddi Gallastegi Osa  
*Surik bai?*
  - 46 **Azkena** Juan Luis Romatet  
*Cerrato*

## BALEIKE



### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-86 15 45  
aldizkaria@baleike.eus  
www.baleike.eus

### Erredaktoreburua

Juan Luis Romatet  
kattan@baleike.eus  
**Erredaktore taldea**  
Maria Maya Manterola  
Onintza Lete Arrieta  
Imanol Azkue Ibarbia  
Mireia Galarza Bastida

### Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea  
**Diseinu arduraduna**  
Ane Azkue  
**Hizkuntza arduraduna**  
Imanol Azkue Ibarbia

### Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua  
publizitatea@baleike.eus  
**Administrazio  
arduraduna**  
Uxua Ostolaza  
administrazioa@baleike.eus

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-405/94  
**ISSN:** 1136-8594  
**Tirada:** 800 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako  
Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA



# ZUZENEKO EKITALDIEN EMISIOAK STREAMING BIDEZ

Bezeroaren  
webgunetik edota  
gure hedabideen  
bitartez



**EKITALDI EDO SAIO  
BEREZIREN BAT  
ANTOLATZEKOTAN  
BAZARA, HEMENTXE  
GAUDE, BERTAKOAK  
GARELAKO**

943-81 38 41  
[gukazerbitzuak@ukt.eus](mailto:gukazerbitzuak@ukt.eus)

**GUKA**  
ZERBITZUAK



# Fruituak dastatzeko unea



ONINTZA LETE ARRIETA

**H**onezkero ohartuko zinen zenbaki hau beteago datorrela; pisu gehiago duela, mardulagoa dela. Orriak aurrera eta atzera ibili bazara, akaso aurkituko zenuen GUKA izeneko beste azal bat, aldizkari barruan. Horixe aurkeztera natorkizu, hain zuzen: mimoz ondu dugun hamasei orrialdeko gehigarria da, eta Urolako Komunikazio Taldearen (UKT) lau herri aldizkariekin banatuko da hemendik aurrera, hilero; Baleike, Karkara, Maxixatzen eta Uztarriarekin. Binakako elkarrizketa sakonak, erreportaje zabalak eta urrutira joan gabe ezagutzeko eta egiteko planak aurkituko dituzu zenbakiz zenbaki. Elkarrizketa edo erreportaje nagusia egiten duen kazetariak gaiari buruz iritzi edo analisisa ere eskainiko du, eta aurrenekoa Amaia Urbietta Zarauzko erredaktoreburuak egokitu zaio.

Papereko berrikuntza honekin batera, lantaldean ilusio handia eragiten digun beste estreinaldi bat ere aurkeztu beharrean gara: GUKA magazina. Hilero ordubeteko saio fresko, bizi eta zapozet betea eskainiko dugu martxoaren 5ean hasita Erlo Telebistan. Mireia Galarza kazetariak aurkeztuta, Urola Kostako herri eta auzoetan barrena ibiliko da saioa. Aurreneko geldialdia Getarian egingo dugu, eta Eñaut Elorrieta izango da elkarrizketatu nagusia. Erreportaje txikiak ere izango ditu magazinak, baita inkesta, agenda eta halako atalak ere. Eta, noski, esku artean duzun gehigarriak ere izango du bere tokia telebista saioan. Batetik, elkarrizketa edo erreportaje nagusiaren laburpena eskainiko da, eta bestetik, Urrutira joan gabe atala izango du: paperean zerbait praktikoa eta motza dena, magazinean zabal eta luze jorratuko da. Gorka Peñagarikano kazetariak egingo ditu aurkezle lanak, eta bisitatzen duen txoko bakoitzean edukiko du tokia erakutsiko dion gonbidaturen bat. Aurreneko geldialdia Azkoitiko Attolan egin dugula ikusiko zenuen. Bada, QR kode bat jarri dugu, erreportaje osoa ikusi ahal izateko oraintxe bertan, eta beste kode bat jarri dugu elkarrizketaren amaieran.

2019ko ekainean sortu genuen UKT, eta iritsi da lehen fruituak patxadaz dastatzeko unea. On egin diezazula! ■■■

**HILERO HAMASEI  
ORRIKO GEHIGARRIA,  
ETA TELEBISTA SAIO  
FRESKO, BIZI ETA  
ZAPOREZ BETEA  
ESKAINIKO DUGU**



## ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laboralak
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 beheak ▪ ZESTOA  
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

# Amesgaiztoa

---

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

---

Argazkikoak bezalako irudiak ohikoak bihurtu dira dagoeneko. Kontaezinak dira proba hauek egin behar izan dituzten pertsonak. Orain urtebete hau guztia ez genuke sinetsi ere egingo; zientzia fikziozko istorio bat izango litzateke; Hollywoodeko superproduzio batean ikusiko genukeen ipuin distopikoa. Baina amesgaiztoa errealite bihurtu zen justu orain urtebete. ■■■

## **Datu teknikoak:**

*Kamera: Nikon D750*

*Objektiboa: nIKON 70-200 mm F2.8*

*Foku distantzia: 200 mm*

*Diafragma: f2.8*

*Obturazio abiadura: 1/400 seg.*

*ISO: 2000*

Instagram: [@arnaitzrubiophoto](https://www.instagram.com/arnaitzrubiophoto)





# Aritz Eizagirre

---

**TESTUA:** MIREIA GALARZA BASTIDA

**ARGAZKIA:** ARNAITZ RUBIO APREA

---

Aritz Eizagirre (Zestoa, 1998) Sarrondobekoan baserrian hazitakoa da, eta txiki txikitatik nahi izan badu ere, orain dela urtebete inguru bertatik bizitzeko hautua egin zuen. Zehazki, 65 behi ditu, eta esne marka propioa ere bai, Xarrondo esnea. Osabak erretiroa hartu ondoren hartu zuen negozioaren lema, eta gaineratu du bere asmoa dela “aurrerantzean baserritik bizitzen jarraitzea”.

## **Nondik dator baserriarekiko duzun atxikimendua?**

Baserrian bertan jaiotakoa naiz, eta aitarekin txikitan hasi nintzen bertako makinak erabiltzen. Berez ez nintzen ganaduzalea, baina uda batean ukuiluan lanean hasi nintzen, behiak jezten. Egun batean hasi, bestean jarraitu eta, azkenean, gustatu egin zitzaidan mundu hori.

Nik beti neukan buruan mekanikaria edo obretako makinista izango nintzela, baina momentu horretan pentsatu nuen hura zela nire ofizioa. 14 urterako garbi neukan badaezpada mekanikako formazio zikloa egingo nuela, baina gero nire ogibidea baserria izango zela. Hasieran gurasoek ez zidaten sinetsi, baina gero ikusi zuten benetan ari nintzela. Nik, behintzat, aukera izan dut nahi dudana horretatik bizitzeko, eta eskertuta sentitzen naiz.

## **Afizioa ofizio bihurtu zenuen, beraz.**

Bai, halaxe da. Hasieran tailerlean ibili nintzen lanean, baina ez zitzaidan gustatzen. Oso luzea egiten zitzaidan eguna, eta uztea erabaki nuen. Berez, osaba ibiltzen zen baserriko ofizioan, eta nik lagundu egiten nion, baina orain dela gutxi erretiroa hartu du, eta nik hartu dut negozioa.

## **Zer egiten duzu zehatz-mehatz?**

65 behi ditugu, eta esnea ekoizten dugu, nagusiki. Zati bat Kaiku enpresara bideratzen dugu eta bestea, berriz, salmenta zuzenerako erabiltzen dugu; hain zuzen, litro bateko, bi litroko, hiru

litroko eta hamar litroko botiletan jartzen dugu esnea. Inguruko herrietako banaketaz ere ni neurratzen naiz: Ondarroa, Mutriku, Deba, Zumaia eta Aia. Ez da erraza, sakrifizio handia eskatzen duelako, baina ingurukoek ere laguntzen didate, eta ezin naiz kexatu.

## **Nolakoa da egunerokotasuna baserrian?**

Egun guztiak desberdinak izaten dira, baina badaude, baita ere, egunero egin behar diren zereginak. 6:45ak aldera esnatzen naiz, eta prestatzen naizenean ukuilura joaten naiz ganaduari jaten ematera. Gero, goizean zehar, esnea botiletan sartu eta furgonetarekin banaketa egiten dut. Eguerdi aldera berriro ematen diet jaten animaliei, eta iluntzean ere bai.

Betebehar nagusiak horiek dira. Udan belarra biltzea ere tokatzen zaigu, eta negua baldin bada, itxiturak eta larretokia ondo ipintzen ditugu, adibidez. Gainera, beti sortzen dira ganaduekin bestelako zereginak ere, dela albaitariarekin egotea, pentsua eroatera joatea, edo erabiltzen ditugun instalazioetako matxuraren bat konpontzea.

## **Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**

Baserritik bizitzen jarraitu nahiko nuke, askatasuna ematen didalako. Egia da oso lotua dela lana, eta ezinezkoa dela bertatik aberastea, baina gauzak ondo xamar kudeatuta baserritik bizitzeko arazorik ez dut ikusten.

## **Eta sektorearena?**

Pena da, gero eta jende gutxiagok jarraitzen duelako baserritik bizitzen, eta batez ere esne behietatik. Hori horrela izanda, sektorearen etorkizuna zuzeneko salmentan ikusten dut. Izan ere, gero eta gehiago baloratzen du jendeak bertako produktua. Gainera, epe motzera jogurta egiten ere hasiko gara, eta gauzak ondo baldin badoaz, gazta freskoa egiten hastea ere gure aukeretan sartzen da. ■■■







SILVIA CARRIZO HERNANDEZ MALEN ETXEO KIDEA

# Egiturazko indarkerien aurkako migr

**X**XI. mendeko emakume etorkinak, “pobreziaren feminizazioaren” mendeko oinordekoak, euskal gizartean beren “ongizate-estatuaren” doikuntzaren aldagaia dira. 13.000 emakume baino gehiago ari dira lanean norbaiten laguntza behar duten pertsonen zaintzaile gisa, lan-baldintza onartezinetan: 24 ordu, 365 egun urtean, orduko 2 euroko soldaten truke, eta horrek ez du arazo etiko edo politikorik sortzen ez gobernu-erakundeentzako, ez enplegu-emaileentzat.

Euskal Autonomia Erkidegoan, mendekotasuna duten adinekoei arreta emateko eta familia eta lana uztartzeko politika publikoek indartu

egiten dute logika neo-koloniala, patriarkala eta kapitalista. Izan ere, logika horren arabera, lehenik eta behin, zainketak emakumen lanak dira; enplegatzaileak boterea du langilearen bizitzan, eta bere jabetzan hartzen du. Azkenik, lan hori eta baldintza horiek emakume etorkin pobreentzat soilik dira.

## MALEN ETXEA ELKARTE GISA ERATU GINEN, KOMUNITATE-SAREA SENDOTZEN LAGUNTZEKO

Euskadiko barne-langileen %98 emakume etorkinak dira.

Malen Etxea elkarte gisa eratu eta antolatuta ginen, komunitate-sarea sendotzen laguntzeko. Gure erkidegoko praktikak politika publikoen artean lehiatzen dira, baina, horrez gain, “Estatu-erdiguneko” ikuspegia alda dezakegu, egoera hori konplexutasunetik problematizatuko duen eta guztiotzako bizi-baldintza duinak eta bidezkoak eraikitzen, eskatzen eta eskatzen jarraituko duen zeharkako diskurtso politikoa eraiki ahal izateko.

Ildo horretatik, gure erakundearen zutabeetako bat da autogestionatuta mantentzea Zestoako Harrera

## HAUXE BAI JENEROA!





# grazio-ingurune seguruak

Etxea, eta orain Zumaiako Harrera Etxea gehitu zaio. Espazio horiei esker, elkartzeko ingurune seguru bat eraiki daiteke. Ingurune horretan, emakumeen arteko loturak sortzen dira, eta, bakoitzaren esperientzia berezi eta funtsezkoetatik abiatuta, zeharka eta modu konplexuan delineatzen da migrazio-arazoaren azterketa; izan ere, emakume etorkin bakoitzak bere gain hartzen du bere izaera politikoa, eta gizarte-aldaketa baten eragile eraldatzailea da bere herrialdean.

Logika kapitalista eta neokolonialak, "Euskal Ongizate Estatuaren" oinarri dena, osasuna eta atsedena izateko eskubidea dutenak, eta

beraien osasuna kontuan hartzen ez den eta atsedenerako eskubiderik ez dutenak banatzen ditu. Hori da euskal gizarteak egunero onartzen duena, arrazismoari eta egungo egoerari hertsiki lotutako egiturazko indarkeriak indartuz.

Gizarte-antolaketa hori egunero gauzatzen da lan-esplotazioko, nahitaezko laneko eta lan-esplotazioko egoeretan, eta hori da gure erronka politikoa: oinarrizko eskubideak urratzen ez uztea eta migrazio-ingurune seguruak sortzea, ezkutuko ekonomia eta oinarrizko giza eskubideen urraketa (askatasuna, esaterako) bereizten ez dituen gizarte batean. ■

## ERREMATEA



SARA IBARGUREN

## Denbora

**E**z dakit igarotako denborak nora bidaiatzen duen, ezta etorkizunak guretzat nolako planak dituen ere. Baina batzuetan gustatzen zait atzera begiratu eta herriko leku desberdinetan gertuko pertsonekin bizitako uneak gogoratzea. Orain haurrak jolasean dabilzan toki batzuetan neure burua imajina dezaket duela zenbait urte leku berean lagunekin barre eta algara artean. Beste batzuetan, aldiz, dagoeneko ez da bertan igarotako orduen lekuko izan zen eraikinik geratzen, Odieta frontoia eta haren atzeko *Juanita* parkea, kasu. Nostalgiko samarra naizela irudituko zaio zenbaiti, eta baliteke arrazoi pixka bat izatea. Baina zer dimentsio izan dezake orduan gure aitona-amonen nostalgiak?

Gaur egun eta martxoan sartu garela gogoratuz, beste gauza batzuen falta sumatzen dugu. Duela urtebete, hain justu ere, pentsatu ere ezingo genituzkeen gauzak. Urtebete da dagoeneko hainbat plan egiteari utzi geniola etorkizunak hala nahi izan zuelako, baina etorriko den denborak itzuliko dizkigu pixka bat zoriontsuagoak izateko beharrezkoak diren zenbait osagai. Alferrikakoa da aurkakoa pentsatzea. ■



# PUBLIZITATEA



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

**7 MARES Izotzuak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943-86 23 09



**diseinua inprimatzea**

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t i



**Agurtzane Okindegia**

Erribera 2 • 943-86 21 52



**AITA MARI**  
Jatetxea

☎ 679 10 31 67  
aitamarijatetxea@gmail.com  
Juan de Zigarán 1 behea • 20750 Zumaia



**AIZPURUA**  
L I B R U D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943-86 15 69



**AL-ANON**

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera  
Tel. 650 26 59 63  
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00



**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

☎ 696 72 61 88  
943-14 32 61



**Amama taberna**

tel.: 943-54 31 64  
amamataverna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Árdantzabide, 3 behea • Zumaia  
☎ 943-54 35 70 • ☐ 688 73 38 56



**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-ARROZTEGIA


www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943-86 25 32 Tel.: 943-86 16 31



**ARDANTZABIDE**  
TABERNA

Ardantzabide, 12  
943-57 22 47



**OGI-EDER**

Nausia, 2 • tel. 943-86 15 21  
ZUMAIA



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69



**Bosch Service**  
Bosch Car Service

**Autos Zumaia**

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP  
Diesel injezioa Mantentze mekanika  
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika  
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85  
autoszumaia@bosch-bcs.com



**Azkue**

www.ricardoazkue.com  
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51  
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



**bai bidea**

Taberna • Jatetxea  
Bar • Restaurante

943-86 02 75  
697 81 24 92  
batzokizumaia@gmail.com  
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6  
Zumaia (Gipuzkoa)

f t i



**BAKUN**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN  
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25 tel./faxa 943-14 83 06  
20749 Arroa bakun@euskalnet.net



**Basadi albaitaritza**  
Riñobitoria Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea • tel. 943-14 33 10  
veterinaria@basadicriñet.com  
www.basadicriñet.com

Goloz: 11-13 / Armatzak: 16-19:30 / Astelehen golozan eta larunbatetan itxia  
Larrikidietarako: 605 72 87 07 Etkez ebeko zerbitzua

# "Korrika egiteko makina deabrua da niretzat"

**MAITE AIZPURUA** AKTOREA

Taula gainean bere bakarkako lana estreinatu zuen Maite Aizpuruak joan den urteko martxoan. Aurkezpen bira bete-bete harrapatu zuen pandemiak, baina han-hemenka emanaldi batzuk izan ditu. Bazterrekoak eszenara eraman ditu Aizpuruak ondutako *Erresistentzia arazo fisikoa da* obrak. Horman Poster kolektiboko kideekin batera, *Antigone edo ezetzaren beharra* taularatuko du orain.

Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

**E**uskal Antzerki Topaketetan estreinatu zenuen *Erresistentzia arazo fisikoa da* bakarkako antzezlan.

Prozesuan zegoen lana zen orduan. Ni berria nintzen, eta ez nekien zenbat denbora iraungo zuen prozesuak.

Sortzen jarraitu nuen, eta lehenengo aurkezpen bat egin nuen lan definitiboarena hemen, Zumaian, martxoan. Gero, Eztena Jaialdian aurkeztu nuen, udazkenean.

## **Zer harrera izan du?**

Antzerki garaikideko kodigoak erabili ditut. Euskal Antzerki Topaketetan lantzen ari nintzanean monologoaren tankera zuen, baina gero beste bide bat hartu zuen. Bakarrizketaren umorezko parte bat bada, baina ez dauka ohiko narrazio lineal bat. Harrera nahiko ona izan duela iruditzen zait. Publiko ezberdinen artean funtzionatu du: 70 urteko batez bestekoa ere egon da emanaldi batzuetan.

## **Zure gorpuzarekin eta ikusleekin esperimentatu duzu, beraz.**

Hasi nintzanean ez neukan buruan gaur egun dena. Hasi nintzen sortzen hainbat lekutatik,

baina ez nuen uste bukatuko nuenik zerbait hain biografikoa egiten edo edukiaren parte bat inbestigazio biografiko bat izaten. Sorkuntzak bide horretatik eraman ninduen, konturatu nintzelako korrika egiteko makina batekin ari nintzela lanean, eta herrena nintzela, eta ez zegoela besterik... Azkenean nire biografiaren inbestigazio lan bat egiten amaitu nuen, hainbat gai mahaigaineratzeko.

## **Zerk bultzatu zaitu bide hori hartzera?**

Sorkuntza prozesuak berak. Matxalen De Pedroren akonpainamendu artistikoa izan dut prozesu guztian zehar. Proiektuaren zuzendaria ni neu izan arren, De Pedro izan dut laguntzen: erabakiak hartzeko, bide berriak zabaltzeko... ez da hainbeste zuzendaritza klasiko bat, baizik eta prozesu guztian zehar dagoena zure lana ateratzen laguntzeko. Eta ez bere kriterioa inposatzeko.

Sorkuntza prozesuan gauza pila batekin esperimentatu genuen, eta ohartu nintzen beti oinarri biografikoa zuten gauzek funtzionatzen zutela, nire disgusturako eta kalterako. Azkenean, De Pedroren laguntzaz bidea hori zela erabaki



nuen, edo, gutxienez, gauza bat eszenikoki kontatzen asmatzen nuena horixe zela. Igual izan daiteke nire lehenengo lana delako, eta ikerketa horretan errazagoa delako artistikoki guregandik oso gertu dauden gaietara jotzea.

### **Antzezlanean iradokitzen duzu “ageriko ikusezinak” zaretela herrenak.**

Aztertu nahi izan dut nola eraikitzen den egia eszena gainean. Uste dut gaur egungo egia eraikitzeko forma ez dela bat eta bakarra, ertz asko dituelako egiak. Antzezlanean dramaturgiaren bitartez egia horrekin jolasten saiatu naiz. Aldatzen doan egia bat da.

Badaude gorputz batzuk klitxe batzuetatik desgaitu bezala klasifikatuta daudenak, eta beste batzuk, adibidez, herrenak, normatibitate bipedoan bazterretan aurkituko ginakeenak. Iaz, bat-batean, desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkartea ezagutu nuenean, galdetu zidaten ea nola ez nuen beraiengana jo ordura arte. Konturatu naiz bollera bezala edota emakume bezala nire burua politizatu dudala. Kapazitismoarena politizatzen nuen, baina beti besteen gorputzetan, eta inoiz ez nirean. Momentu batean ezgaituen zakuan gehiago nengoen gaituenean baino. Ordurako ezin nuen erabaki egunaren edo momentuaren arabera zein aldetan egon nahi nuen. Hor hasi nintzen politizatzen zer den egotea erdibideko linbo horretan.

### **Azkarrago harrapatzen omen da gezurtia herrena baino.**

Orain jabetu naiz behin estreinatu eta gero nolabaiteko dolu prozesu bat hasi dudala. Dolu pertsonal bat, sistema honetako gaitasunetatik guztiz kanpora geratzen den garai bateko gorputz bat dela-eta. Antzezlanean diskapazitatea duen pertsona batek normatibitatearekin duen harreman anibalentea erakusten du.

Normatibitatearekin daukazu harremana ez da gauza zurrin bat: alde kapazitista kontuan izanda, badaude gai diren pertsonak eta badaude gai ez direnak; gehienok hor tartean daude. Ezaugarri batzuk sistemaren desgaituen artean sartzen zaituzte. Ezaugarri horiek nire kasuan aldakorrek dira: sistemarekiko erresistentzia oso bortitza batean bizitzetik, aldatu den gorputz eta gaitasun normatibo batzuk eskuratu ditut. Nire helburua zen horrekin jokatzeko, publikoaren begirada aldatzen joatea: eszenan ikusten duenean gorputz herren eta lodi bat, gorputz horrek egin dezakeenaz eta egin ezin dezakeenaz,

desiratu dezakeenaz eta desiratu ezin dezakeenaz... antzezlanean bitartez begirada hori aldatzen joatea edo leku ezberdinetatik begiratzen joatea.

### **Normatibitatearekin hausteak erresistentzia dakar.**

Bai. Erresistentzia politikoki erabili izan den hitza da ofentsiba baten aurrean. Gorputz batzuk badaude ezin dutenak aukeratu ez bizitzea erresistentzia batean. Hau da, normatibitatearen etengabe hausten dute. Ez da desiratutako gauza bat. Nire kasuan, behintzat, oso fisikoa da. Esan nahi dudana da hau ezin dela gorputzik gabe bizi, momentu horretan zarenak eta nire kasuan herrena izateak bizitzako arlo guzti-guztiak gurutzatzen dituela, bai harremanetan, bai politikoki, bai maila pertsonalean, bai bizitza antolatzeako forman...

Etengabeko erresistentzia batean bizi zara, eta badakizu edozer egiten duzula ere, ezin izango duzula erraztasun batetik egin. Erresistentzia termino politiko bat da: ez da aukera bat, oso lotuta dago materiari.


### **Maite eta korrika egiteko makina taula gainean. Bien arteko elkarrizketa bat al da antzezlana?**

Korrika egiteko makina deabrua zen niretzat. Korrika egiteko makina baten aurrean zabaltzen den promesa da hor norbaitek hor egingo duela korrika modu funtzional batean, modu errentagarri batean, gorputz atletiko batekin, edo gutxienez horretan bihurtzeko desirarekin. Normatik kanpo gauden gorputzak ez gara bizi orain eta hemen; beti bizi gara etorkizun hobe baten desiran. Beti zerbait hobearen subjektu deseanteak gara. Kapazitismoaren kasuan, gaitasunak hobetzeko desira da. Promesa hori oso garrantzitsua da niretzat. Hor dago, baita ere, nork bere mugak gaintzearen kontzeptua, oso anibalentea dena.

Horren aurrean, promesa hori da azkenean gurutzatzen gaituena gure bizitzetan, eta horren aurrean interprete herren batek promesa horrekiko duen harremana aztertzen du.

### **Sorkuntza prozesuan korrika egiteko makinarekin esperimintatu ondoren, deabrua izaten jarraitzen du?**

Lanerako elementu bezala ikusten dut. Prozesuaren hasieran fisikoki ere asko esperimintatu nuen makinarekin, jolas parke bateko tiobibo bat balitz bezala. Alde batetik, korrika egiteko makinaren iruditeria zabaldu zait; eta, bestetik, lanerako elementu bat da niretzat. Hala ere, deabrua izaten jarraitzen du niretzat.



Errehabilitaziorako makina bat ere izan daiteke. Hori adibidez ez neukan pentsatuta. Kasu honetan, bide artistikotik, baina izan da.

### **Horman Posterrera batu zara Xanti Agirrezabala eta Jon Ander Urrestirekin batera.**

Hamar urtetik gorako ibilbidea du kolektiboak. Helburu batekin batu ginen: euskal antzerkigintzan ekarpen bat egitea, antzerkigintza garaikidetik. Proiektuak martxan jarri nahi ditugu, alde batetik, testuinguruarekin lotuta daudenak gure inguru natural, artistiko eta familiarrarekin, eta bestalde, antzerkia sortzeko formak, eszenaratzeko formak eta ekoiztekoak, birpentsatzeko zituena. Formularik gabe jarri ginen martxan. Berez, proiektuak aurrera ateratzea da horretarako formulak bilatzeko mekanismoa.

### **Gehien antzeztu den obra klasikoa da Antigona. Euskaraz taularatuko duzue Horman Poster kolektiboko kideek.**

Xanti Agirrezabala, Jon Ander Urresti eta hirurok kolektibora batu ginenean, modu oso libre batean probak egiten hasi ginen, elkarren arteko konexio puntua aurkitzeko. Desobedientziaren gaia atera zen, eta horrekin bueltaka genbiltzala, Antigona testua atera zen. Obra literarioa eta Antigona pertsonaia desobedientziaren ikur bilakatu dira, bai mugimendu sozialetatik, bai feminisमतik, literaturan ere asko aztertutako pertsonaia da...

Konturatu ginen ondo zegoela klasiko bat hartzea, klasiko hori hartu eta horrela kontatu beharrean, pentsatzeko erreferentzia horrekin. Batez ere, aztertzea Europako zurien kultura klasikoarekin eta ikono eta obra horrekin zer harreman dugun guk. Kontua ez da klasiko bat horrela taularatzea, baizik eta horren inguruan sortu den imajinarioa aztertzea gaur egunetik.

### **Erronka handia izan da betikoa berritzea?**

Bai. Alde batetik, historia klasikoa kontatu nahi duzu; baina, bestetik, nahi duzu hortik ateratzen diren gaiekin zer harreman duzun ikertu. Itzulpen bat egin behar duzu 2.500 urte geroago.

Ez zegoen konpainia profesionalik euskaraz egin zuena. Jokin Zaitegi jesuitak exilioan pentsatu zuen euskal kulturak behar zuela obra klasiko handiak itzultzea, euskal kultura jasoa sortzeko. Saiatu ginen bere testuarekin, baina garai bateko euskara batuaren aurretik zegoen euskara jasoaren saiakera bat zen testua, oso ederra, baina lanerako balio ez zuena. Zer zentzu dauka 2.500 urte geroago Antigona euskarara ekartzeak? Zer

gertatzen zaio sortzaileari ez badu lortzen bere lana publikoak edo irakurleak ulertzea? Galdera hori bera egin genion guk geure buruari. Zergatik dira mitoak mito?

### **Gaur egun presente dagoen gai bat ere ageri da antzezlanean: hildako bat modu duin batean agurtzeak dolu prozesu batean izan dezakeen garrantzia.**

Antigonak estatua desobeditzen du bere anaia gurtzeko. Gertatu dena gertatu eta gero, garrantzi handia hartu du gai horrek. Tragedia atera da, nahiz eta horren bila ez ginen joan. Arriagan, esaterako, ikusle bat *shock*-ean geratu zen, eta protokoloarekin atera behar izan zuten. Ez dakit gaiagatik den, estetikagatik...

Seguru nago gaur egun gutako gehienak gure inguruko hildakoak agurtzeko eskubidea badugula. Nik hori esaten dut zumaiar bezala eta zuri bezala. Guretzat ohikoa dena pribilegio bat da. Baina bat-batean pribilegio hori geneukana eta oso garrantzitsua dena ez daukagu. Zenbat jende ote dago ezin dituenak hildakoak agurtu? Estatuak esaten du: "persona hau ez da duina, arrotza da, eta txakurrak jan dezala bazter hartan. Desterratuko dugu hil ondoren". Hasieran etortzen zitzaizkigun Gerra Zibileko eta Mediterraneoko hildakoak. Zenbat gorputz geratzen dira bide bazterretan gurtu gabe? Gu pribilegiatu batzuk gara, eta bat-batean ez daukagu pribilegio hori. Eta gainera, ez dugu desobeditzen pribilegio hori. Egoera horretan aurkitu den jende askok inpotentzia sentituko zuela pentsatzen dut.

Sofoklesen originalean horrek ez dauka hainbeste pisu. Hasieran, hainbat modutara kontatzen da mitoa bera, eta gero boteredunaren tragedia, obedientearen tragedia eta desobedientearen tragedia ageri dira. Horrela egituratzen da obra. Denbora guztian dago irakurketa bat rol bakoitzaren kontraesanena, eta rol bakoitzaren pribilegio egoerarena, ardurena eta menpekotasun egoerarena.

### **Urte eta erdiko prozesua izan da. Azaroan aurkeztu zenuten, eta orain herriz herri ibiliko zarete?**

Bai, Arriagan aurkeztu genuen azaroan, eta geroago Azpeitian Euskal Topaketetan. Emanaldi bat edo beste badugu, baina borrokan gabiltza boloak lortzeko.

### **Beste proiekturen bati heldu diozue?**

2022rako *Souvenir* proiektua sortzen ari gara. Turismoaren gaiarekin hasi ginen, nola eragiten zuen gure inguruan. Gizakiak uste du mugarik ez duen animalia bakarra dela. Errealitate bat da





**"SORTZEKO, ESZENARATZEKO ETA EKOIZTEKO FORMAK BIRPENTSATU NAHI DITUGU KOLEKTIBOAN"**

**"GORPUTZ BATZUK BADAUDE EZIN DUTENAK AUKERATU EZ BIZITZEA ERRESISTENTZIA BATEAN"**

**"EZ DAGO MODURIK PROIEKTU SAKON ETA BERRITZAILEAK MODU DUIN BATEAN GARATZEKO"**

nolabaiteko neokolonialismo bat edo espazioaren anbizio bat oraindik eta bizitza hobek sortzeko mundutik kanpo. Turistak daukan anbizio hori leku guztiak ezagutzeko, leku guztietan sartzeko... Mugagabeak garen sinesmen hori turismoan asko ikusten da. Pandemiak hankaz gora jarri digu, baina ez dakit. Hori da abiapuntua.

**Koronabirusaren krisialdiak hankaz gora jarri zuen zure lehenengo bakarkako obra ere.**

Ni hasi berria naiz, baina zorzea izan dut Horman Posterrekin, azkenean ekoizpen nahiko handitan sartu naiz, eta aukera izan dudalako sorkuntza lanaz gain ezagutzeko banaketa, ekonomia, testuinguru artistikoa, lekuak, pertsonak...

Proiektuak aurrera ateratzeko desirarekin gaude, baina gero oso ezegonkorra da guztia. Proiektuak lasaitasunez eta prekarietatik kanpo planifikatzeko egiturarik ez dago. Horren aurrean, gure estrategia da sorkuntza bateko eginbeharrak kolektiboki egitea, bizitza eta lana uztartzeko eta, bide batez, ondo bizirauteko formula propioak topatuz. Koronabirusarekin hori areagotu egin da. Planifikaziorenak berdin jarraitzen du: ezin aurrera begiratu segurtasunez. Gorabeherak oraindik eta intentsoagoak dira.

# PUBLIZITATEA



**BASUSTA**  
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Ekezarrate, 25 Tel.: 943-86 20 73  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 98  
asadorbasusta@hotmail.com



**EDU**  
ZUMAIAKO  
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6  
20750 Zumaia, Gipuzkoa  
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16



**EGOKI**

Erlou  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943-86 17 87



**Ekin**  
EKOINTEK S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97  
ekinsi@ekinsi.com www.ekinsi.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara** **MÁSMÓV.L**



**ERNIO**  
TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45



**ERTZ INFORMATIKA**

Portatilen mugikorren  
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95



**Galdona**  
burdindegia

Mendaro marinela, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46  
Juan Belmonte, 15 faxa 943-86 13 30



**Garaa**

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola  
tel.: 943-86 21 81  
Txomin Agirre, s/n  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)



**GLENCOE**  
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRITZUAK

Zunbilo kalea, 12 behea  
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!



Ikastegi homologatua

**Golden Gate**  
institute  
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea  
tel./faxa 943-86 50 20  
info@goldengateinstitute.com



**Gure Txokoa**  
taberna

Upela plaza, 4  
20750 Zumaia  
Tel.: 943-86 09 70



**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara Ingelesa praktikatzera  
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34



**ilargi**

Alai auzategia, 2  
Tel. 943-24 50 20



**INPERNUPE**  
ELKARTEA

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23



**Irianda optika**

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



**IRUDI OTS**

Ikuskizun orotarako soinua  
eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com



**IRUITZ**  
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta  
tratamendu  
personalizatuak

San Telmo12 943-86 07 60

Lan pertsonalarekin eta konpainiarekin sentitzen dudana da elkarrizketa gehiago ematen ditugula bolaraino. Horrek esan nahi duena da sentsazioa daukagula interes handia sortzen dutela proiektuek, baina emanaldiak lortzea guretzat oso zaila da. Ez da joera orokorra, badaude programatzaileak konpainia berrien eta proposamen berrien alde apustu egiten dutenak, baina, orokorrean, oso zaila da emanaldiak lortzea ez bazara konpainia oso ezagun bat edo komedia naturalista egiten duen konpainia bat.

Ez dago modurik proiektu sakonena eta prozesu luze eta berritzaileenak modu duinean garatu ahal izateko. Pena da. Antzezten duzunean batzuei gustatuko zaie eta besteek ez, baina sentsazioa daukat jendeak beste zerbait eskatzen duela. Jendeak Netflix ikusten du. Informazioaren kudeaketa, irudiak eta istorioak nola jasotzen ditugun, zer desira daukagun guk ere artelan batekin harremana izateko... aldatzen doa, eta antzerkian ere jendeak asko eskertzen ditu dena esplikatu ematen ez duten antzeztan. Ez dator bat eskaintza jendeak daukan desirarekin.

**Neurri murriztaileak, distantziek eta etxeratze aginduek bizitzak, sozializatzeko espazioak eta ohiturak baldintzatu dituen garaiotan, balioan jarri dugu kultura?**

Hor sartzen da jokoan zer den kultura bera. Bizirauten jarraitu behar dugu, eta ondo dago kontzertuak, antzeztan eta erakusketak mantentzea, baina hortik harago doa. Ekitaldi horiek zerbait baldin badira, erritu sozialak dira. Antzeztana ondo egongo da, baina hobeto sarreran norbaitekin topatu eta komentatzea zer moduz dabilen, edo bukaeran antzeztana gustatu zaigun... Kultura hori da, elkartzeko leku bat. Ondo dago arte eszenikoetako profesionalak baldintza eskasetan bada ere, lan egiten jarraitzeko antzokiak zabalik



mantentzea, baina ez gaitzen engainatu. Ez da hori, edo ez da hori bakarrik. Garrantzitsua jendearekin elkartzeko da. Harreman hori beharrezkoa da. Antzeztan bat martxan jartzen denean, gertaera hori da garrantzitsua. Hori da kultura.

**Zer aholku emango zenioke antzerkiaren mundura gerturatu nahi duen norbaiti?**

Esango nioke proiektu pertsonalak ez direla bakarrik, eszena bakarrik agertu arren. Nik jaso dudana laguntzarik gabe ez nuen sinetsiko. Eskatu, jaso, eman... horrela ateratzen dira proiektuak aurrera. Bakarrik ezin da. Esango nioke animatzeko ate denak jotzera. Nirekin kolaboratu duten ia guztiak hogeitertetik gorako ibilbidea duten profesionalak dira. Asier Renteria ez, baina ez dago Euskal Herrian soinu teknikari hoberik. Eta niretzat huskeria bat egiten aritu da. ■■■



# Bizitza bolantearen atzean

Eloi Urbietak, taxilaria

Beste lanbide batzuetan aritu ondoren, orain ia lau hamarkada hasi zen Eloi Urbietak Errazkin taxi bat gidatzen. Orduetik, urte hauetan guztietan, lanbidea eta herria bera aldatzen ikusi ditu. Erretiroa hartzeko gogoz, bere taxira igo gara lanbide honen inguruko xehetasunak jaso eta ofizioarekin Zumaia ere nola aldatu den jakiteko.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

**T**axista on batek gustukoa izan behar du gidatzea”, dio Eloi Urbietak Errazkinek (Zumaia, 1957). “Ez bazaizu gidatzea gustatzen, ez du zentzurik txofer izateak”, gaineratu du Ignacio Zuloaga plazako eserleku batean eserita.

Aurrean du autoa, bere laneko erreminta, plaza honetan egokitutako geltokian, eta lanbideak uzten dizkion tarteetako bat aprobeztatu du galderak erantzuteko.


Gidatzea gustukoa izateaz gain, pazientzia edukitzea ere beharrezkoa izan daitekeela aipatu dio kazetariak taxilariari, sarritan orduak eta orduak igarotzen dituztelako geltokian, gris koloreko metalezko telefono kabinatik hurbil, bezero batek zerbitzua noiz eskatuko duen zain. “Egunak eta egunak daude. Negua gogorragoa egiten da, hemen hotz handia egiten du eta. Halakoetan, kotxe barruan gordetzen gara, edo noizean behin kafe bat hartzera joaten gara. Eta gero aguanta. Baina, bestela, ondo pasatzen dugu eguna”, dio.

38 urte daramatza lanbide honetan, eta erretiroa gertu ikusten duela aitortu du. “64 urteak beteak ditut, eta lizentzia salgai jarri dut; dagoeneko lagatzeko moduan nago”, dio. Ia lau hamarkada daramatza bolantearen atzean; milaka kilometro egin ditu urte hauetan guztietan. Taxiarekin urtean 60.000 kilometro inguru egiten dituela dio

Urbietak. “Batzuentzat gutxitxo izango da, baina hori da nik egiten dudana”.

Taxi gidaritza ez zen izan, ordea, Urbietaren lehen lana. Oraindik mutil koskorra zela, hamalau urterekin, hasi zen lanean galdaragintzako enpresa batean, “soldaduskara joan nintzen arte; bi urte egin nituen soldadu eta haren ondoren herritik kanpo ezkondu nintzen. Ondoren, hiru bat urtez egon nintzen kamioiarekin lanean, erreparto lanetan. Etxean ama ez zegoen ondo, eta ingesatu behar zuten bakoitzean emaztea etortzen zen Zumaiara ume txikiarekin; ni kanpoan geratzen nintzen lanean. Ikusi genuen ezin genuela horrela jarraitu, eta hala hasi nintzen taxiarekin”.

Errepidearen erreiak bakarrik ez, bolantearen atzetik gizartea edo, hain urrutira joan gabe, ofizioa nola aldatu den ere ikus daiteke. “Guk tailerrekin egin izan dugu lan gehien; lanaren hamarretik zortzi tailerrekin egiten genuela esango nuke. Muebles Xey zegoen, Torreaga zegoen, Modelo zegoen. Fabrika horiek guztiak martxan zeuden, eta hango jendea aireportura eramanaz-eta egiten genuen lan, adibidez. Tailer horiek guztiak itxi egin dituzte, baina oraindik enprekin egiten dugu lan. Lehen baserriar jendearekin ere egiten genuen lan: baserrietako emakumeak herrira jaisten ziren erosketak egitera; asteen behin edo egiten zuten, eta gero



*irrimarra*



taxian igotzen genituen erosketekin. Hori joan da; orain gazteek beraien kotxeak dituzte, eta beraien modura ibiltzen dira”.

Taxista bakoitzak bere bezeroak ditu, eta askok zerbitzua aurrez lotzen dute. “Datorren asterako, adibidez, pare bat bidaia lotuta ditut bezero batzuk medikuarengana eramateko”. Zumaian sei taxilari daude gaur egun eta bakoitzak bere bezeroak dituela dio. “Hori errespetatzen dugu; taxista batek besteari bezeroak kentzea txorakeria da, agian noizbait bestearen laguntza beharko duzulako. Nik, agian, bi bidaia izan ditzaket egun batean; lehendabizikoa eginda, bigarrenora helden ez banaiz, beste taxista bati eskatuko diot zerbitzua egiteko. Gaur nigatik, bihar zuregatik. Adibidez, pandemia honekin lankide batzuek konfinatuta egon behar izan dute, eta haien zerbitzuak besteok egin ditugu. Hori pasatu zaigu. Kontua da bezeroa gustura uztea eta zerbitzu hori ematea; bezeroa zintzilik uzten baduzu, ez zaizu bueltatuko”.

Beste herrietako taxilariekin ere harreman on bera dutela gaineratu du. “Ezin duzu esan harekin ez duzula trataturik izan nahi, agian egunen batean haren laguntza beharko duzulako. Behin, Astilleroetatik deitu zidaten esanaz lauzpabost taxi beharko zituztela Pasaiatik gauez jendea ekartzeko. Ontzi bat itsasoratu zuten, eta gauez helduko zen Pasaiara. Banekien hemengo bizpahiruk ezingo zutela lan hori egin, lehen orduan jaikitzen direlako, eta Getariako taxistekin hitz egin nuen zerbitzua eskaintzeko. Beraiek ezin dutenean lan bat egin, guri deitzen digute”.

Cabify, Uber... Taxilarietarako kompetentzia egiten dieten enpresak dira, eta hiri handietan iskanbilak ere izan dira taxilarien eta enpresa hauetako gidarien artean. Hona oraindik ez direla heldu dio. “Enpresa horiek hiriburuetan eta aireportuetako saltsetan aritzen dira. Hemen, momentuz, ez

daude; ez zaie interesatzen, horiek bidaia onak nahi dituzte, ez jendea ambulatiora eramán”.

Taxilarietarako badute, ordea, beste mota bateko kompetentzia: autobusak. “Orain, momentu honetan, COVIDagatik, gauzak geldirik daude, baina zapatu gauean orduro daude autobusak”. Horrek gaueko girora eramaten gaitu. Sagardotegiak, herriko festak... Parranda gau baten ondoren bada jendea taxia eskatzen duena etxera bueltatzeko. “Baten batek deitzen badu larrialdi bat duelako, erantzungo diot, baina ezaguna ez bada, ez naiz joaten. Lehen jendeak errespetu gehiago zuen; orain zurekin geratzen dira goizeko lauretan, eta ez da inor agertzen. Arazoa hor dago”. Zarauzko taxilari baten adibidea jarri du Urbietak. “Orain pare bat urte izango zen, sansebastianetan. Taxista hark esan zidan lan bidaia hartu zituela, gauez, Azpeititik Zarautzera jendea eramateko. Gustura zegoen. Bada, lau bidaia horietatik bakarrekoa agertu zen, beste hirurak ez ziren agertu. Jendeari ez zaio ezer axola. Gero, ezetz esaten badiezu, gaiztoa zeu zara, eta baiezkoa emanda, barre egiten dizute”.

## Eloi Urbietak

- **Adina:** 64 urte.
- **Ikasketak:** Lehen Hezkuntza fraide mertzedarioetan.
- **Lanbidea:** Taxilaria.
- **Taxilaria ez banintz...** Galdaragintzan jarraituko nuen, edo, gidabaimena dudanez, txofer, autobus batean edo.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Gure lanaldia ez da inoiz bukatzen! Baina denbora dudanean, ehiza, arrantza edo baratzean lan egitea.





Laneko erreminta asko bezala, taxilariak ere beraien erreminta berritu behar izaten dute; autoa, alegia. “Bakoitzak erabakitzen du hori. Nik bost bat urtean behin aldatu izan dut kotxea. Gure eguneroko laneko erreminta da eta aldatu behar izaten da. Zuei, kazetariak ere gertatuko zaizue”.

Elkarrizketa amaituta, taxia aparkatuta duen lekura itzuli gara, kabina txikiaren albora. “Oraindik ere erabiltzen da telefono hau; bakoitzak gure mugikorrak ditugu, baina oraindik bada hona deitzen duenik ere. Lehen txirrina entzuteaz gain,

argia pizten zen goialdean. Orain haririk gabe telefono bat dago barruan, eta etortzen den lehen taxistak hartzen du”.

Elkarrizketa amaituta, emaztea etorri da. Eloi Urbietak aurrez aipatutako zerbait gogoratu du kazetariak. “Familiarekin geratu bazkaltzeko, eta justu orduantxe deitu behar larrialdi batekin. Hori behin baino gehiagotan pasatu zait. Familiarentzat ezer berria ez dela izango esan dio kazetariak. “Familia ohituta dago jada. Eguneroko ogia da”. ■



# Ate irekiak

## Martxoak

HARTU  
HITZORDUA!!

# 10



Erdi Maila: 17:00  
Goi Maila: 18:00



943-36 46 00



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# BALEIKE BAZKIDE

Zuen beharra izaten jarraitzen dugu. Babestu Km0 hedabideak.



**Egin zaitez bazkide!**

Bazkide egiteko: [bazkide@ukt.eus](mailto:bazkide@ukt.eus) • 943-86 15 45

## NON DAGO BALEIKE?



Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna [aldizkaria@baleike.eus](mailto:aldizkaria@baleike.eus) e-posta helbidera bidali martxoaren 19a baino lehen. **Saria:** Ongizan fisioterapia bonoa. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Luis Zulaika Baleikeko bazkidea da Baleike pertsonaia aurkitu duena.



**ongizan**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

# Nola erabili pantailak haurraren onerako?



**MIREIA CENTENO**  
PSIKOLOGOA

Hautzaroaren garapenaren inguruan aritzen garen profesionalok askotan hitz egiten dugu pantailak gutxi erabiltzearen garrantziaz, baina, era berean, guraso garenok, badakigu haurrak eta pantailak bereiztea ez dela lan erraza.

Egun bizitzen ari garen egoerak, gainera, etxean denbora gehiago igarotzera behartzen gaitu, eta haurrak etxean denbora asko egotearen ondorioetako bat da aspertzea eta telebista nahi baino gehiago erabiltzea.

Hori errealtatea izanda eta gehiago edo gutxiago gehienok pantailak erabiltzen ditugula onartuta, horri guztiari probetxua ateratzearen inguruan hitz egin nahi dizuet gaurkoan. Beraz, nola erabil ditzakegu pantailak haurraren onerako?

Hasteko, edukiaz hitz egingo dugu. Badaude gai interesgarriak aurkezten dituzten marrazki bizidunak edo filmak, eta badaude, baita ere, eduki kaltegarriak ematen dituztenak, azken horiek zaharkituta egoteagatik, edota youtuben filtrorik gabeko igorleak izateagatik. Kasu horreetan, garrantzitsua da

haurrek ikusten ari direna ikuskatzea.

Gaur egungo teknologiak ematen digun beste aukera bat hizkuntza aukeratzea da. Beraz, ordu asko daramatzanean pantaila aurrean, hizkuntza aldatu eta horiek lantzeko aprobetxa dezakegu.

Sekuentziak eta denboralizazio lanketarako ere oso tresna aberatsak dira haurrentzako telesailak. Lanketa hori, atal bat ikusten dutenean, gertatu dena gogoratzean eta ordenean jartzean datza. Hori egitean, gainera, hizkuntzaren espresioa ere landu dezakegu.

Eduki berriek hiztegi berria dakarte. Interesgarria izan daiteke azaltzen diren hitz berriak errepikatzea, horien esanahia gogoratzea eta esaldi ezberdinetan erabiltzea, errazago barneratzeke.

Balioak egunerokotasunean transmititzen dira. Batez ere gurasook eta hezitzaileok gara zuzenean haurrengan eragiten dugunok. Baina telebistan

## FILM BAT FAMILIAN IKUSTEN DUGUNEAN DENBORA ELKARREKIN IGAROTZEN DUGU

edota beste pantailetan ikusten dutenak ere indarra du, alde horretatik. Marrazki bizidunetako hainbat pertsonaia beraien erreferente bihurtzen dira; beraz, garrantzitsua da aukeratzen dituzten edukiek transmititzen dituzten balioak familiaren heziketarekin bat etortzea.

Programa elkarreragileak aukeratu. Marrazki bizidun batzuek erronka ezberdinak planteatzen dizkiete ikusleei. Galderak egiten dizkiete, asmakizunak, ariketak... Aukera interesgarriak izan daitezke horrelakoak ere.

Kritikoak izaten lagundu. Gure pentsamoldeekin bat ez datozen mezuak edo edukiak aurkitzen ditugunean, erakutsi ikuspuntu ezberdinak daudela eta erakutsi beraien ikuspuntuak garatzen eta defendatzen.



Youtubeko kanal interesgarriak. Yoga, ezagutzak, esperientziak, eskulanak, dantzak... eduki interesgarriak ere aurki ditzakegu, erabili hori guztia haurraren onerako.

Eta, azkenik, familian ikusteko edukiak aukeratu. Film bat familian ikusten dugunean denbora elkarrekin igarotzen dugu, esperientzia bat partekatzen dugulako. Beraz, utzi telefonoak eta jarri arreta. ■■■



# Handitik txikira

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



## Zein arraiio!



Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena
- Ipurdirik ez du agerian
- Ez du eztenik, ezta tronparik ere
- Ezin du hegan egin
- Sei zango ditu
- Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten
- Oso bista aparta dela esan liteke.



## itzala


Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

**Oinutsik** Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?




# Labirintoa

Lagundu Pelloziriri zomorro lotsagabe horri ihes egiten. Honokoak dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera egin, baina inoiz ez diagonalean.




Ostiralak badu beste izen bat: BARIKU. Osa itzazu lauki zuriak hitz hori osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, A, R, I, K eta U). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

## Sudokua



## Zazpikoa

Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)



# PUBLIZITATEA

**ORRAZTEGI ZUMAI A**

943-86 20 83

## JUARISTI

jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

**KABI** TABERNA

Pateita Etxezarreta, 15  
943-11 74 27

**Kaithermik S.L.**

**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20

**KALARI**

Upela plaza, 8  
tel. 943-86 25 17

## MAIAUR

ZUMAI A

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269

CROISSANTERIA

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

## marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

*maximus* **PENCIL**  
estudio decoración

---

Julio Beobide, 2 • ZUMAI A  
699 49 52 56  
maximuspencil@gmail.com  
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan

**MENDI - ONDO S.L.**  
**Elektrizitatea**

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

## "Muagi"

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91

**LIDEN**  
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz  
678 875 652 / 943 905 983  
lur@olidenreformas.com  
www.olidenreformas.com

## NOIA S.L.

**TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK**

**Etegabeko garabi zerbitzua** **636 86 78 12 (Zumaia)**  
**609 83 44 38 (Itziar-Deba)**

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industrigunea, C  
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91  
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com www.carroceriasnoia.com

**OSA  
BERNIZATUAK**

**Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea**

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

**OSTOLAZA**

OSTOLAZA ZUMAI A S.L.

Joxe Mari Kortza Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943-86 50 68 • Faxa 943-86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

## Ostolaza

altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25  
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAI A (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

## Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



# Bihotz gutxiegitasuna (II)



**ROSA AZKUE**

ZUMAJAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

## Gomendioak

- Tentsio arterialaren eta diabetesaren segimendu eta kontrol egokia.
- Loditzea saihestea.
- Estresa kontrolatzea.
- Bizitza osoan ariketa edo jarduera fisiko osasungarriak egitea eta iraunkorra izatea.
- Alkohola eta tabakoa kontsumitzeko ohiturarik ez izatea.
- Bestelako estimulatzailek ez hartzea.

Horiek guztiek bihotz -gutxiegitasunaren bilakaera prebenitu eta hobetu dezakete.

## Likido -erretentzioak aurrera ez egiteko gomendioak

- Zorrotz bete gatzik gabeko dieta. Ez erabili gatzik ez janaria prestatzean, ez mahaian, eta ez hartu sodioa izan dezaketen jatekoak ("Na" agertzen da etiketetan).
- Edan likido -kopuru finko bat (litro bat eta litro eta erdi bitartean). Egun osoan hartzen duzun likidoa zenbatzeko, gogoratu fruta, zopa eta esnea ere hartu behar dituzula gogoan.
- Ez edan alkoholik eta edari gasdunik.
- Hartu agindu dizuten medikazio gutzia eta adierazi dizuten ordutegia.

- Saihestu gehiegizko jarduera edota betebeharrak. Saiatu lasaitzen zaituzten jarduerak egiten.
- Hasi egunero pisatzen eta idatzi pisua orri edo libreta batean.
- Paziente batzuei txiza egiteko medikazioa (diuretikoak: furosemida) euren kabuz doitzeko gomendatzen zaie, eta, likido- erretentzioa sumatuz gero, hiru edo bost eguneko medikazioa igotzeko (ohikoak baino pilula bat edo bi gehiago hartu beharko da, galtzen den likidoaren arabera; Furosemida izeneko botika izaten da erabiliena). Pisan diren gorabeherak adierazten dute nola erantzun dion gorputzak medikamentu -kopuruaren igoerari; pisua jaisteak atxikitako likidoak kentzen ari zarela adierazten du.
- Behatu egunean zehar egiten duzun gerneru-kopuruari.

## **SAIHESTU GEHIEGIZKO JARDUERA EDOTA BETEBEHARRAK. SAIATU LASAITZEN ZAITUZTEN JARDUERAK EGITEN**

- Diuretiko -dosia igo arren loditzen jarraitzen baduzu, beharbada likido -erretentzioa handitzen ariko zaizu; beraz, eskatu hitzordua lehen mailako arretarako medikuarenera joateko.
- Ez hartu medikazio berririk (kontuz gripearen aurkako medikazioekin eta antiinflamatorikoekin), eta ez automedikatu. Kontuz bereziki eferbeszentea den guztiarekin, gripearen aurkako medikazioekin eta antiinflamatorikoekin (beharbada hezurren minerako erabiliko dituzu). Ez hartu mina arintzeko tratamendurik, ezinbestekoa ez bada; izan ere, paracetamola kenduta, medikamentu antiinflamatorio edo analgesiko gehienek likidoak atxikitzea eragin dezakete. Azken asteetan medikamentu horiek hartu badituzu, kendu eta egiaztatu okerrera egiteko kausa izan ote diren (bihotz gutxiegitasunaren deskonpentsazioa).
- Tentsio arterial altua baduzu, komeni da tentsioa hartu eta idatziz jasotzea, hurrengo bisitan zure medikuari datu horien berri emateko. Balio oso altuak edo ohi baino baxuagoak behin eta berriz badituzu, hitzordua eskatu medikuarekin. ■■■

## PUBLIZITATEA



**SOLOZABAL**  
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416  
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak  
Psikomotrizitatea - Naturopatia

[www.sura.eus](http://www.sura.eus)

**Sura**  
ZAINTZA  
DINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

**Talaja**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

**Tapaia**  
Taberna

Erbers kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943-86 19 73

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943-86 52 89

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (kodilloa)  
Saltxitzak, oilaskoak...  
Garagardoak-dukera

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 575 905



**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberría Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 • 943-86 09 92 [www.ukendu.com](http://www.ukendu.com)

**UZKUDUN**  
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943-11 63 97



Amaiko plaza, 13 tel. 943-86 23 85  
[www.xantialtzariak.com](http://www.xantialtzariak.com)

**yoana**  
ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behea  
943-14 32 78



**Zalla**  
taberna




- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urtza Plaza 3 • 943-86 23 81 ZUMAIA

**ZUMAIA**  
**AUTOESKOLA**

Basadi, 12 / 943-86 10 18 / [zumaiaautoeskola@hotmail.com](mailto:zumaiaautoeskola@hotmail.com)

**UKT**  
UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.



**ASTEARTETIK OSTIRALERA, EGUNKARIA:**  
Urola Kostako HITZA



**HILERO, ALDIZKARIAK:**  
Maxixatzen + Uztarria + Baleike + Karkara



**UNEORO:**  
[maxixatzen.eus](http://maxixatzen.eus) + [uztarria.eus](http://uztarria.eus) + [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus) +  
[baleike.eus](http://baleike.eus) + [karkara.eus](http://karkara.eus) + [erlotelebista.eus](http://erlotelebista.eus) +  
[zarauzkohitza.eus](http://zarauzkohitza.eus)



**EGUNERO:**  
Erlo telebista

**ASTERO:**  
bideoak gure webguneetan



+sare sozialak

## MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen digital multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea eta marka irudia



Atari digitalak

06



Diseinu lanak



Telebista

05



Webguneak eta marketin digitala

04



Edukien sorkuntza

03



Komunikazio kanpainak

02



Estrategia eta planifikazioa

B K erto  KH  ZH



# Etorkizuneko energia II: Berriztagarrien iraultza

Testua: **Markel Peñalba.**

**A**urreko zenbakian energia sektorearen transformazio globala aztertu genuen, eta negutegi efektuko gasen (NEG) isuriak drastikoki eta azkar murrizteko hiru ardatzak definitu: energia kontsumoaren murrizketa esanguratsua, energia efizientziaren hobekuntza eta energia berriztagarrien hedapena. Urte gutxiren buruan likatze eta gas zentraletako kea garbitzeko haize turbinak zein eguzki panelak ezohiko eskaletan, ezohiko kokaguneetan eta ezohiko jabetza ereduak instalatu beharra aipatu genuen, baina galdera asko airean geratu ziren. Izan ere, zein da eskala txikiko eta handiko azpiegituren arteko diferentzia? Zein dira ezohiko kokapen horiek? Eta ezohiko jabetza ereduak? Hona hemen galdera horiei, eta beste batzuei, erantzuteko saiakera.


Hasteko, defini dezagun gaur eguneko kontestu energetikoa datuekin. Mundu mailan kontsumitzen den energiaren % 11 inguru soilik da jatorri berriztagarrikoa (kontsumo elektrikoaren % 26 pasatxo)<sup>1</sup>. Europan, berriz, berriztagarrien ekarpena handiago da, azken energia kontsumoaren % 18 gainditzen du (kontsumo elektrikoaren % 31). Edozein kasutan, berriztagarrien ekarpena oso da txikia, karbono neutraltasunera iristeko geratzen den bidearen zailtasunaren erakusgarri.

Biomasa, energia geotermikoak eta energia hidraulikoak gaur egun pisu handia dute, baina etorkizunean emango den berriztagarrien hedapenean haize eta eguzki energia izango dira energia iturri nagusiak: egungo haize eta eguzki energia, 9 eta 14 aldiz biderkatzea espero da, hurrenez hurren, 2050. urterako.

Gurera etorrira, Hego Euskal Herrian (Ipar Euskal Herriko datuak lortzeko zailtasunak direla medio) 2017. urtean azken energia

kontsumoa ia 85 TWh-koa izan zen, eta horietatik 19,3 TWh soilik izan ziren elektrizitate moduan kontsumituak<sup>2</sup>. Beraz, kontsumitutako energia guztiaren %9 besterik ez zen energia berriztagarrien bidez sortu, Europako batezbestekoaren oso azpitik.

Beraz, energia berriztagarrien ekarpena handitu nahi bada, horrelako zein bestelako instalazio dezente beharko dira



etorkizunean. Izan ere, 2050. urterako kontsumoa erdira murriztuko bagenu ere, energia kontsumo guztia (45 TWh inguru) berriztagarrien bidez estali ahal izateko egungo energia berriztagarrien potentzia instalatua boskoiztu egin beharko genuke. Transformazioaren handitasunaz ohartzeko, kontuan izan Eusko Jaurlaritzak proposatutako 4 haize energia parke berriek ez dutela gehitu beharreko potentzia instalatuaren % 5 ere betetzen, nahiz eta egungo EAEko potentzia instalatua hirukoiztu ia.

Erantzun ditzagun, bada, lehen planteatutako galderak.

### Azpiegituren eskala

Energia berriztagarrien aldaera ezagunena mendi zein larreetan ikusten ditugun haize turbinen edo eguzki panel fotovoltaikoen parke handiak dira, hamarnaka turbina edo milaka panel elkarren ondoan jarrita. Izan ere, orain arte teknologia hauek zuten kostua zela eta, enpresek eskala handietara jo behar izaten zuten bideragarritasun ekonomikoa lortzeko. Adibide modura, Oiz mendian kokatuta dagoen 25 MW-ko haize energiaren parkeak 30 turbina biltzen ditu eta orain gutxi Araban eraikitako 24 MW-ko EKIAN eguzki energiaren parkeak, berriz, 67.000 eguzki panel. Teknologiaren garapenaren ondorioz, panel fotovoltaikoen zein haize turbinen prezioa jaitsi denean eskala txikiagoko instalazioak ere bideragarri bihurtu dira, eta horrek etxebizitzin zein beste eraikinen teilatuetan instalatutako eguzki panel fotovoltaikoak ugaltzea ahalbideratu du.

### Azpiegituren kokapena

Instalazioen eskalak zuzenean eragiten du instalazioen kokapenean. Eskala handiko instalazioak ekonomikoki errentagarriagoak izan ohi dira, baina lur eremu zabalak okupatu ohi dituzte, sarri beste erabilera batzuk izaten dituzten lurak edo balio ekologiko garrantzitsua dutenak. Dena dela, energia berriztagarriak ez dira beti beste erabilera mota batzuekin bateraezinak izaten eta Greenpeace talde ekologistak argitaratutako txosten batek dio haize zein eguzki energiak erabat bateragarriak direla, adibidez, nekazaritza edo abeltzaintza bezalako beste jarduerekin<sup>3</sup>.

Eskala txikiagoak, aldiz, errentagarritasun ekonomiko baxuagoa izan arren, kontsumo puntuan bertan instalatzen dira, aurrez existitzen diren eraikin edo azpiegituren teilatuetan integratuta. Ondorioz, ez dute lur eremu gehigarririk behar izaten eta sorkuntza eta kontsumo puntuen arteko distantzia laburtuz, elektrizitatearen garraioan ematen diren galerak minimizatzea ahalbideratzen dute.





## **ITSASOKO HAIZE TURBINAK LEHORREAN DITUGUNAK BAINO DEZENTE HANDIAGOAK IZANGO DIRA**

## **ZUMAIAN ERE EGUZKI ENERGIA IZANGO DA ITURRI BERRIZTAGARRI AIPAGARRIENA**

Teknologiaren garapenak, prezioak jaisteaz gain, orain arte pentsaezinak ziren kokapen batzuk aprobetxatu ahal izatea ere ekarri du. Haize edo eguzki energia parkeentzat kokagune egokiak topatzeko lehorrean dauden zailtasunak direla medio, azken urteetan uretara jauzi egin dute bi teknologiek: instalatzen hasi dira haize turbinak itsasoan eta eguzki panel fotovoltaiko flotagarriak laku edo ibaietan. Itsasorantz eginiko jauzia bereziki interesgarria da, itsasoko haize turbinak gaur egun lehorrean ikusten ditugunak baino dezente handiagoak izango baitira potentzia zein tamainari dagokienez: 20 MW arteko potentzia eta 220 m arteko diametrodun turbinekin, futbol zelai baten luzerako palaz osatutako turbinak.

### **Azpiegituren jabetza ereduak**

Instalazioen eskalak berriztagarrien parkeen jabetza ereduak ere baldintzatzen ditu. Instalazio handiek hasierako inbertsio oso altuak eskatzen dituzte eta inbertsio maila horiek enpresa energetiko handien esku bakarrik daude. Eskala txikiko instalazioak, berriz, inbertsio maila baxuagoa eskatzen dute eta, ondorioz, etxejabe bakar baten edo herritar talde txikien eskura dauden inbertsio mailak izan ohi dira.

Eguzki energiaren kasuan, eskala txiki zein ertaineko instalazioak eraikin publiko edo pribatuen teilatuak zein herrian bertan dauden lursailetan eraikitzen dira. Haize energiaren kasuan ere antzekoa da egoera, baina haize turbinak, normalean, ez dira eraikinen teilatuetan kokatzen, herritik gertu dauden lur eremuetan baizik.

Bi kudeaketa mota ezberdin ohi dira: herritarrek osatutako energia sorkuntza eta kontsumo kooperatibak edo udal instalazioak. Haize energiari dagokionez, Alemaniako Ipar Frisia eskualdearen kasua oso esanguratsua da, 60 haize energiaren parke eta 700 MW inguruko potentzia instalatua izanik, % 90 baino gehiago eskualdeko herritarrek kudeatzen baitituzte. Alemania osoan instalatutako berriztagarrien ia % 50 dago inbertitzaile txikien eta kooperatiben esku<sup>4</sup>. Eskala txikiko herritar kooperatibek kudeatutako instalazioek abantaila ugari dituzte eskala handiko parkeen aldean: energiaren inguruan herritarren kontzientziazioa sakontzea ahalbidetzen dute, herritarren parte hartzea sustatzen dute, ez dute lur eremu gehigarririk okupatzen, ez dute ekosistemarik suntsitzen, galerak murrizten dituzte eta mozkinak erakunde publiko edo herritarren artean banatzen dira, eta komunitatean egiten diren inbertsio bilakatzen dira.

Baina eskala txikiko instalazioak soilik erabiliz, ezinezkoa da daukagun kontsumo maila berdintzea, ezta kontsumo maila hori, aurrez iradoki bezala, erdira murriztuko bagenu ere. Ondorioz, eskala ezberdineko instalazioen konbinaketa ezinbestekoa da; herritarren parte hartzea sustatzen duten eskala txikiko instalazioak ahalik eta gehien aprobetxatu beharko dira eta falta den energia zatia, betiere kontsumoa ahal den neurrian murriztu ondoren, eskala handiagoko energia parkeekin estali.

### **Herrien papera burujabetza energetikoan: Zumaiako kasua**

Energia Berriztagarrien Agentzia Internazionalak (ingelesezko International Renewable Energy Agency, IRENA) bere azken



txostenean nabarmentzen duen moduan, herri eta hirien parte hartzea beharrezkoa izango da trantsizio energetikoan, energia berriztagarrien instalazio deszentralizatu eta komunitarioak eraikiz. Ondorioz, aurrez aipatutako eskala txikiko instalazio berriztagarriak gero eta sarriago ikusiko ditugu, eraikin publiko zein pribatuetako teilatuetan eta herri inguruetako lur sailetan.

Zumaian bertan ere izango dute oihartzuna horrelako mugimenduek. Zumaian, herri gehien kasuan bezala, eguzki energia izango da iturri berriztagarri aipagarriena. Hala aipatzen du Zumaia Udalarentzat Aitor Ossak osatu berri duen azterketak<sup>5</sup>, nahiz eta haize energia, hidraulikoa eta bioenergia ere aztertzen diren. Bertan, Zumaia herriak duen energia kontsumoa 281 GWh inguruko dela estimatzen da, eta horietatik 81 GWh (% 30) energia elektrikoa da. Herriko eraikin publikoen zein pribatuen teilatuak eguzki panel fotovoltaikoak ezartzeko aprobeztatuta, 16 GWh sortu ahal izango liriteke eskala txikiko instalazioen bidez, kontsumo osoaren % 6 eta kontsumo elektrikoaren % 20. Herriarren kasuan, aurreikusten da etxebizitzentzako ezarritako autokontsumoko instalazioen bidez etxebizitzentzako kontsumitutako energia elektrikoaren % 40 herritarrek beraiek sortu ahalko luketela. Udalari dagokionez, berriz, bere eraikinetako teilatuak aprobeztatuta, eraikin horien argindar kontsumoaren % 78 lortu ahal izango luke eta udalaren argindar kontsumo totalaren ia % 40.

Jauzi kualitatibo garrantzitsua litzateke, baina energia kontsumo osoaren zati txiki bat soilik estali ahal izango litzateke eskala txikiko autokontsumo instalazioen bidez. Beraz, energia kontsumoa drastikoki murriztuko bagenu ere, herrian kontsumitzen dugun energia osoaren zati handi bat geratuko litzateke estaltzeko.

Hori dela eta, Zumaian zein beste edozein herritan, eskala ertaineko instalazioak izan litezke autokontsumoko instalazioekin estaltzeko geratzen den zatia murrizteko era egokiena. Instalazio ertain horiek herrian bertan dauden lurretan eraikiko liriteke eta, ahal den neurrian, herritarrek beraiek sortutako kooperatiba bidez kudeatu, herritarrek eta herritarrentzat filosofia mantenduz. Adibidez, hektarea bateko eta MW bateko instalazio ertain batekin, 625 familiaren argindar kontsumo osoa hornitzeko adinako energia gehigarria sortu ahal izango litzateke.

Eskala txiki zein ertaineko instalazioen inpaktu ekologikoa oso txikia litzateke eta energia trantsizio baten behararen inguruan eztabaida sortu eta kontzientzia energetikoa esnatzeko sekulako ahalmena duten instalazioak liriteke, batez ere instalazio horien plangintzan, eraikuntzan eta energiaren kudeaketan herritarren parte hartzea bermatuko balitz.

Herritar kooperatiba horiek kontzientziazio ariketa kolektibo bihurtuz, energia trantsizioaren garrantziaz eta trantsizio hori arrakastatsua izan dadin gaur egungo kontsumo ereduak daukan pisuaz ohartzen den pertsona bakoitza mundu benetan jasangarri baterako bidean jarritako eguzki panel bakoitza baino garrantzitsuagoa izango da. ■■■



<sup>1</sup> REN21 (2020). Renewables 2020 Global Status Report.

<sup>2</sup> Euskal Autonomia Erkidegoko datuak EUSTAten datu basetik hartu dira, eta Nafarroari dagozkionak, berriz, Nafarroako Balantze Energetikoaren txostenetik.

<sup>3</sup> X. Gracia, J. Domínguez, J. Linares eta O. López (2005). Renovables 2050: Un informe sobre el potencial de las energías renovables en la España peninsular.

<sup>4</sup> ñigo Capellan Pérez, Álvaro Campos Celador, Jon Terés Zubiaga (2018). Las cooperativas de energías renovables crecen a pesar de las barreras burocráticas en España. *Energy Policy* aldizkarian argitaratutako lanaren laburpena.

<sup>5</sup> Aitor Ossa (2020). Zumaiaiko Energia Estrategia 2020.

# Agirietan ia ageri ez direnak



**TESTUA:** IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

*Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna da, duela gutxi arte Emakume Langilearen Eguna, emakumeak ere langileak zirela aldarrikatzeko. Batez ere XX. mendean sartu zen bete-betea emakumea (soldatapeko) lan munduan, baina ordurako aspalditik ari zen lanean, hala aitortzen ez bazitzaion ere. Artxiboetako paperetan begiratuta eta gizonekin alderatuta, emakumezko gutxi agertzen dira, eta testuinguru jakin batzuetan, gehienetan. Baina han egongo ziren, ezta?*

2020an, Zumaian 10.111 lagun bizi ginen, horietatik 5.087 emakumezko eta 5.024 gizonezko<sup>1</sup>, eta atzera eginda,

ikusten da gertaera tamalgarririk izan ezean, proportzio hori (erdia eta erdia) mantendu egiten dela. Baina non daude, orduan, emakumeak artxiboetako agirietan? Zergatik ez dira agertzen? Arrazoi nagusia: esparru horiek (administrazioa, politika, jabetza, kultura...) gizonezkoenak baino ez zirelako, gehienetan, eta eguneroko bizimodua eta gertaera arruntak ez zirelako jasotzen dokumentuetan, ezaguntzat eta jakintzat ematen zirelako, eta horietan aritzen zirelako, batez ere, emakumeak. Baina ondo begiratuz gero, hor ikusiko ditugu, ia bazter guztietan.

Emakume asko azaltzen dira, adibidez, epaiketetako agirietan,

izan epaituak, epaitegietara jo zutenak edo lekukoak. Izan ere, epaitu beharreko gertaera edozein lekutan eta unetan gertatzen zen, bereizi gabe parte hartuko zutenen sexua, adina, gizarte estatusa..., eta biztanleen erdiak emakumeak izanik, ez da harritzekoa tartean aplikatzea. Hona hemen adibide batzuk: 1881ean, emakume alargun batek bere bi koinata auzitara eraman zituen eta eskatzen zuen “que se corrijan esas bocas desenfrenadas que han soltado la palabra de sangre vendida [odol-salsallia]”<sup>2</sup>, eta haiek koinatari hori deitu zioten ez zirelako lagatzen iloba ikuten uzten; 1886an, harakin batek emakume bat salatu zuen epaitegian, kalean iraindu zuelako, otarrean haragia ezkutuan zeramalakoan eskatu



Despeskan, emakumeak aurrealdean, gizonezkoak atzealdean, Arranplan. GOROSTOLA IRIBAR SENDIAK UTZIA

zitonean erakusteko, eta hark “le increpó duramente con palabras calumniosas é injuriosas (de ladrón cochino y putanero)”<sup>3</sup>; 1774an, bi ahizpa dendarik Donostiatik itsasoz gatza ekarri zieten marinela salatatu zituzten, balea olioz zikinduta iritsi zitzaielako jeneroa eta erreklamaturakoan iraindu egin zituztelako, “lo que sigue en Bascuence, goacen emendic lotsagave desvergonzatuoc eraguin ez deguiguen bear ez dan gauzarembat, a que respondieron ellas que mas desvergonzado era el”<sup>4</sup>; 1802an, senarrak emakume bat salatu zuen, hark emaztea iraindu ziolako, bi andreak moilan eztabaidan eta borrokan hasi zirenean norena ote zen arrainez betetako otar bat, eta haietako bat uretara erori zenean, noiz eta “que estava en punto de sacudirla un zaplazo”<sup>5</sup>; Goiko plazako arropa-denda batean izandako lapurretan, 1816an, auzian deklaratu zuten gehienak emakumeak izan ziren, izan jabeak (ama alarguna eta alaba), izan lekukoak (adibidez, okin bat, goizean goiz goia egitera jaikia), izan ustezko lapurretako bat...; beste epaiketa batean, 1833an, senargaia salatu zuen emaztegaiaren amak, gizonak hautsi egin zuelako ezkontzeko konpromisoa...

Emakumeak azaltzen dira, baita ere, Elizaren bueltan.



Apaizak aurrealdean dauzkatela, emakume pila bat eliz atarian. ZUMAIAKO UDALA

Emakumezkoak ziren serorak<sup>6</sup>, eta begira nola gorai patzen duten udal paperetan Arritokieta ermitako seroraren lana, 1777an ere bazelako etxeratzeko agindua: “se pagan diez y seis reales anuales ala inquilina de nuestra señora de Arridoquieta, una de las no profanadas que está situada a tiro de vala del cuerpo de esta villa, en una eminencia que la domina, por el trabajo y cuidado de tocar a la queda una buen campana que hay en dicha Hermita, en verano a las nueve de la noche y en invierno a las ocho, para que a estas horas se retire la gente a sus casas; por cuio medio se evitan alparezer muchas quimeras y desordenes y contribuye al buen gobierno y administración de la justicia”<sup>7</sup>; eliz kontuak aitatu ditugunez, hor daukagu mojaxarrak, 1614an gure herrian ezarriak eta 2008ra arte gure artean egonak; hor daukagu, halaber, Karmeldarren Karitatekoak, Patxita Etxezarreta Powerren ekimenez etorriak, Maria eta

Jose eskolara; Patxitak oinordetzan hartu zituen Vicente Etxezarreta aitaren ondasun ugariak, herriko handixkietako bat baitzen hura, eta ongintzan ere aritu zen: neskek eskolaratzen ahalegindu zen, Arritokieta kaleko etxe bat eman zion Udalari erruki etxea edo ospitalea egiteko behartsuentzat... Moja gehiago ere izan ziren gurean: 1902tik 1914ra Mariaren zerbitzariak beren ardurapean izan zituzten *Miserikordia* (edo erruki-etxea) eta Lazaretoa<sup>8</sup>.

Emakumeek protagonismo handia zeukaten egunerokoan, beraiek arduratzen zirelako etxeko martxaz, baina horretaz gain, etxetik kanpo ere egiten zuten lan eta lanbide batzuk bereziki emakumezkoenak ziren, eta halaxe dago propio jasota paperetan (adibidez, gaztelaniazko femeninoa jarrita: *limpiadora*, *encargada*...): gaixoak zaintzen eta haien arropak garbitzen zituzten; udal eraikinak (eskolak, udaletxea, albergak,



## ORDUAN BAI EMAKUMEAK ZUMAIAKO HISTORIAN



Artazuritzen aritzen zen emakume kuadrilla, Mutrikuko maluteroarekin, Oikian. GOROSTOLA IRIBAR SENDIAK UTZIA



Dena ez da lana izango... 1962ko santelmoetako argazkia. ZUMAIAKO UDALA

musika-eskola...) garbitzen zituzten; salerosketan aritzen ziren (arraina, fruta, barazkiak...), eta dendetan eta tabernetan ere jarduten zuten, batzuetan negozioen buru ere bai; posta eraman eta ekartzen zuten; parbuloen eskola partikularrez arduratzen ziren, nesken eskolaz eta auzoetako eskolez (Artadin eta Oikian)... Etxeko lanetan aritzen ziren seinale, zita hau: "El Sr. Presidente [alkateak], expone que se le han acercado algunas mujeres, en petición de que se señale un punto fijo y apropiado para verificar la limpieza de colchones y batimento de lanas"<sup>9</sup>. 1910eko udal erroldan, emakumezko gehien-gehienei ofizioa "etxeko lanak" jarri zieten, baina ageri dira beste lanbide batzuk ere: bainuzaina, tratularia, sukaldaria, trapu biltzailea... Jexus Gorostola *Toreroak* txikitako oroitzapen bat kontatu zidan: ama despeskako lanetan aritzen zen askotan, moilan, eta dena utzita moilatik etxera joaten zen ume txikienari bularra ematera, eta gero atzera

lanera, moilara. Halaber, kontserba lantegietan ere batez ere emakumeak aritzen ziren lanean. Azkenik, emakumeak etxerako gauzak (olioa, haragia, ardoa, pattarra...) erosten eta eramaten zuten, enkargutan, batzuetan legez ordaindu beharreko zergeri iskin egin nahian ere bai, eta txaperoek estraperloko jeneroarekin harrapatzen zituztenetako asko emakumezkoak ziren; hauxe 1887ko adibide bat: "que por el guarda municipal José Antonio Arrizabalaga han sido decomisados a Doña María Antonia Corta, siete litros de espíritu"<sup>10</sup>; orduan ere zebilenari gertatzen zitzaion... Udal langileak aitatu ditugunez, hauxe 1907ko bitxikeria bat: zabor biltzailea kargutik kendu egin zuten zinegotziek, zergatik eta "no guarda el respeto debido con las mugeres al entregar éstas las cajas de las basuras y hasta se ha propasado en algo más"<sup>11</sup>.

XX. mendearen hasieratik hona aldaketa nabarmena izan da eta ageriago daude emakumeak, batez ere 1960-

70eko hamarkadetatik aurrera, eta alor guztietan: administrazioan, politikan, hezkuntzan, osasungintzan, lan-munduan, kulturen, kirolatan... Baina horiek hobeto ezagutzen ditugu, ezta? ■■■

<sup>1</sup> Instituto Nacional de Estadística, 2020.

<sup>2</sup> Zumaia Udal Artxiboa, 227, 1881-06-03an.

<sup>3</sup> ZUA, 227, 1886-4-03an.

<sup>4</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra, COCRI425-2, 1774an.

<sup>5</sup> GAO, COCRI501-8, 1802/1803an.

<sup>6</sup> Serora: elizaren edo ermitaren eguneroko ardura duen eta zenbaitetan apaizari laguntzen dion emakumea (Harluxet entziklopedia).  
<sup>7</sup> ZUA, 69-96, 1777-11-04an.

<sup>8</sup> Lazaretoa: gaixotasun kutsakorra duen gaixoa edota epidemia dagoen toki batetik datorren bidaia-aria isolatzeko osasun zentroa (Harluxet entziklopedia). Zumaia-ko Arritokietan ermitaren eta San Juan egoitzaren artean zegoen, gaur egun *Usategia* dagoen lekuan.

<sup>9</sup> ZUA, 2849-169bis, 1932-02-17an.


<sup>10</sup> ZUA, 2823-192, 1887-04-21ean.

<sup>11</sup> ZUA, 2832-477, 1907-06-07an.

# Pandemiaren irudiak

Koronabirusak eragindako osasun krisialdiaren lehen urteurrena bete da. Distira Argazki Elkarteko kideei pandemiaren ikuspegia argazkien bidez lantzeko eskatu diegu. Irudi eta testu hauen bidez kontatu dute izurriteak zer suposatu dien.

Argazkiak eta testuak: **Distira Argazki Elkarte**.



## HARRAPATUTA - IBAN RODRIGUEZ

Iraupen luzeko eta lightpainting argazkiak egiten ditugu.

Hilabete zailak izan dira Zumaiara joateko. Baina Nafarroan ez dugu itxitura perimetralik izan; hala ere, “toke de kedarekin” ez da berdina.

Normalean, furgoneta hartu eta Zumaiara edo toki berriak ezagutzera joaten gara. Beti argazkiak egitera. Baina egoeragatik, lightpainting-eko argazkiak etxean bertan egin ditugu. Oso arte aberasgarria da eta, gainera, oso dibertigarria. Argazki honekin, koronabirusak ekarritako ziurgabetasuna erakutsi nahi dugu.

Dirudienez, 2020ko martxoan

sartu ginen tunelean gaude oraindik, eta bertatik nola irtengo garen jakitea ez da erreza.

Urte gogorra izan da, benetan. Baina egoera okerrenetatik beti ateratzen da zerbait ona.

Ezjakintasunak edo ziurgabetasunak ez du zertan txarra izan. Hori bai, egoera honetan, gure zentzumen guztiak ON moduan jarri beharko ditugu, onak ikusteko. Argi dago, ia guztiak gure erosotasun eremutik irten garela, eta guk, behintzat, gure bizitzara iritsi diren gauza positibo guztiak jaso ditugu.



### **BESARKADAK BUELTATUKO DIRA - JOSE LUIS GARCIA**

Gogoan dut oso arraroa egin zitzaidala ukondoarekin agurtu ninduten lehenengo aldian; hain da antinaturala, ezen, errepikatzen badut ere, ez bainaiz ohitzen. Duela egun gutxi maiteminduen eguna ospatu genuen, maitasunaren eguna. Gizakiak maitasuna behar du eta erakutsi egin behar du, kontaktu fisikoa behar dugu...

Nire gurasoek 57 urte daramatzate ezkontuta, elkarrekin bizi dira eta ukondoarekin baino modu naturalagoan agurtu daitezke, baina San Valentín argazki hori egin nahi izan nien, keinu horren artifizialtasuna islatzeko. Musuak, besarkadak, nahi dugun jendearekiko kontaktu fisikoa... falta ditugu. Hilabete asko eta gehiegi daramat gurasoak, anai-arrebak, lagunak besarkatu gabe, eta asko kostatzen da.

Zorionez, bide luze honen amaiera ikusten hasi ginen, txerto moduan, eta espero dut laster berriro besarkatu ahal izatea, inoiz baino indartsuago.

### **IZAR BERRIAK ZERUAN - SORAYA LOPEZ**

Gauetz zeruari argazkiak ateratzea gustatzen zaigunoi bereziki aldapa gora egin zaigu azken urte hau, etxeratze-aginduak eragotzi egiten zigulako izarrekin genuen hitzordura irtetea.

Argazki hau 2020ko abuztuan atera nuen hilerri batean, azken hilabeteetan argazkilariok esne-bideari argazkiak ateratzeko aukera izan dugun gau bakanetako batean.

Hemendik gertu dagoen hilerri batean, nire amonak atsedean hartzen du. 2020ko urrian hil zen, eta, indarrean dagoen araudiaren arabera, ezin izan nion agur esan, nahi bezala. Gutxienez, bere hiletara joan ahal izan nintzen (25 pertsonara mugatua) 500 km egin ondoren errepide hutsetan zehar, baimena ematen zidan agiri batekin. Zalantzarik gabe, agur esan gabeak eta bakardade erlatiboko heriotzak dira azken urte honetako alderik gogorrena eta gehien kostatuko zaiguna.





**"GAUEKO" KALEETAKO ERREGEA  
- EVA FRANCO**

Euskal mitologian, Gaueko, gauaren irudikapena ez ezik, iluntasunaren jainkoa ere bada. Presentzia ikusezin bat bezala irudikatzen zen, batzuetan bi hankaren gainean altxatzen den otso beltz bat, edo beste animalia mota bat, behia, hontza edo ardia, kasu. Ondoriozta dezakegu, Mari bezala, itxura aldatzeko gai den izaki bat dela (hau da, izaki zoomorfiko bat) eta elementuak menderatzen dituela. Artzainak eta ardiak jaten zituela esaten zen, eta horregatik beldurra zioten. Inguruan bizi zirenei ematen zien beldurratik, gizakiek laguntza eskatu zioten Mariri. Marik bere lehen alaba Ilargiren argiarekin bedeinkatu zituen, baina bere argia ez zen nahikoa eta gizakiek berriz eskatu zioten Mariri laguntza, oraingoan jainkosak bere bigarren alaba Eguzkirekin bedeinkatu zituen. Baina gauak arrisksua izaten jarraitu zuen, eta Marik bere babesaz bedeinkatu zuen eguzkilo bat zuen edozein etxe.



Gauakoren erregealdia gauerdian hasten da egunsentira arte, eta gainerako eguna gizakiarena da. Denbora horretan, bere lege propioarekin erreinatzen du, eta gizon edo emakume bakar batek ere ez du etxearen antzinako babesa utzi behar, ez eta harrokeriaz jokatu edo lapurtu behar ere.

Gauakoren erregealdia gauerdian hasten da egunsentira arte, eta gainerako eguna gizakiarena da. Denbora horretan, bere lege propioarekin erreinatzen du, eta gizon edo emakume bakar batek ere ez du etxearen antzinako babesa utzi behar, ez eta harrokeriaz jokatu edo lapurtu behar ere.

**BIDEAN TOPATUKO GARA - SONIA ALVAREZ**

Karreterak ia hutsak, ezin garelako mugitu. Ivan eta ni, Sonia, Distirako kideak gara, baina Nafarroan bizi gara.

Pandemia hasi zenetik, Zumaiara joatea ez da erreza izan. Ni idazkari lanak egin ditut azken bi urteotan, eta, egia esan, teknologiaren aurrerapenei esker, ondo moldatu naiz betebeharrak egiteko.

Bilerak Internet bidez egin ditugu eta gutxitan bildu gara kideok, Txuri Beltzeko lehiaketaren erakusketarako, Zuloagaren erakusketaren inaugurazioan, gure erakusketa kolektiborako eta, azkenean, urrian posible egin genuen irteeran, bakarrik bildu gara zenbait kide.

Argazki honen bitartez erakutsi nahi dugu argazkilariorik (beste askok bezala) malabarrak egin ditugula, gure afizioa edo lana aurrera ateratzeko.

Nahiz eta karreterak "itxita" egon, beste argazki batzuk planteatu zaizkigu, eta bide berriak topatuz, argazkiak egiteari ez diogu uko egin.



## **SAN TELMOAK 2020 BALKOIETAN - JORGE MURGIONDO**

Apirilaren 18a heldu zen azkenik eta konfinaturik jarraitzen genuen. Umeak artean kalera irteteko bahimenik gabe, ospitaleetatik eta zahar etxeetatik albiste kezkarriak jasotzen... Beldurra eta ziurgabetasuna nagusi.

2020ko San Telmo heldu eta kalean ezin ospatu; kaleak huts-hutsik. A zer komeria!! Halere, Zumaiako biztanleak normaltasun apur bat behar zuten aurrerabidean. Ez zen ez geldirik egoteko unea, ez, ez.

Auzo, kale eta balkoiak ahalik eta ondoen atondu auzolanean, irratiak eta bozgorailuak martxan jarri eta balkoieta atera zen ilusioz marea urdina, jaiak ospatu eta bizitzera.

Momentu animoso eta hunkigarriak bizi izan genituen benetan, "ez-jai" berezi hauetan Paolbidean eta Zumaiako txoko askotan. Ez dira berehalakoan ahaztuko...!!!



## **KALE HUTSAK - JOSE LUIS GARCIA**

Kale hutsa da azken hilabeteotan aldatu diren gauzetan pentsatzen dugunean gehien burura datorkigun irudietako bat, eta Gabonak ez ziren salbuespena izan. Herriko kaleak ikusi ahal izan genituen Gabonetako dekorazioarekin, nolabaiteko normaltasun sentrazio bat transmitituz, baina errealitatean kaleak hutsik geratzen ziren etxeratze aginduaren ondoren. Gutako asko ez ginen gure familiarekin bildu joan den Eguberria ospatzera, gu babesteko, baina, batez ere, haiek babesteko, horiek baitira gehien maite ditugunak.





### **MAREA GORRIA - SORAYA LOPEZ**

Urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, ni, argazkilari asko bezala, Donostiara edo Azpeitira joaten naiz danborradaren argazkiak ateratzera. Hala ere, aurten ezin izan dugu; alde batetik, ez direlako ospatu; eta, bestetik, egin izan balute ere, Zumaia gorritz zegoelako eta ezin ginelako herritik atera.

Argazkilariok ez gara hain erraz adoregabetzen, eta ezin badugu nahi dugun argazkia egin, beste bat bilatzen dugu. Egun hartan goiz jaiki eta kirol porturaino hurbiltzea erabaki nuen, egunsentiari argazkiak ateratzera. Nire harridurarako, hodeiak gorritz tindatzen hasi ziren, eta egunsenti eder batez gozatu ahal izan nuen etxetik ia mugitu gabe.

### **BERRI TXARRAK - EVA FRANCO**

Irudi hau 2020ko otsailaren erdialdean sortu nuen. Harryri eskatu nion koroa bat egiteko metalezko pieza batzuekin eta bridekin eutsi zuen. Handia geratu zen eta Mariak eskuekin heldu behar izan zuen, erori ez zedin. Ez dut gogoratzen zergatik nahi zuen koroa bat, baina ziur aski argi testen bat egiteko metalarekin... eta koronabirus hitza jada distantzian entzuten zelako bere magnitudea ezagutu gabe. Ez nuen inoiz imajinatu, urtebete geroago eta pitzadura batzuk gehituta, irudi honek inoiz baino zentzu handiagoa hartuko zuenik. Koroa handi geratu zaigu, testak jada ez dira argizkoak eta denok dugu, sakonera handiago edo txikiagoan, denboraren “aguaplast”-arekin disimulatzen saiatuko garen arrakalaren bat. Berri Txarrak taldekoek dioten bezala, “Denbora da poligrafo bakarra”. ■■■





# Mundu bati kanta



## ENE BAITAN BIZI DA

**Egilea:** Maddi Ane Txoperena

**Argitaratzailea:** ELKAR

**Argitaratze urtea:** 2020

**Orrialdeak:** 184

**Generoa:** Narrazioa



**TESTUA:** ANTTON PEÑALBA

Maddi Ane Txoperena hendiari gaztearen, kazetariaren eta bertsolariaren lehen liburua da hau. X. Gazteluma Saria irabazi zuen eta horri esker heldu zaigu eskuartera. Honela zioen Txoperenak liburua aurkezteko egindako elkarrizketa batean: “Oso ezagunak dira Bortzirietako eta Baztango kontrabando gaiak, edota Ameriketara joandako artzainen bizipenak, betiere nagusiki gizonezkoenak. Emakumeak ere izan ziren mugalariak! Emakume horien historiak ez, ordea. Nik neskame joandako emazteek bizitakoari balioa eta ikusgarritasuna eman nahi izan diot eleberriaren bidez”.

Pertsonaien gainean eraikitako eleberria da, eta bi hari narratibo elkartzan dira. Mariek protagonizatutako istorioa dugu batetik. Donibane Lohizuneko da Marie, neska gaztea. Parisen egiten dituen ikasketak amaitu eta etxera bueltatuko da uda pasatzeko asmoz. Baina aitaren etxean geratu beharrean, amonaren

baserrira, Manttanbaitara, joango da, Berara. Gazteak unibertsiatete ikasketei amaiera emango dien lana falta du eta lana amatxiren gaztaroan oinarritzea erabakiko du, eta horretarako amatxi Josefina ren laguntza beharko du. Amatxik, ordea, ez du batere gogoko bere gazte garaia gogoratzea.

Bigarren hari narratiboak amonaren beraren gaztaroa kontatzen du. Josefina, amatxi, Bortzirietako eta Baztango beste hamaika emakume bezala, gazte garaian 50eko hamarkadan Frantzia aldean (Donibane Lohizunen eta Parisen) neskame ibilitakoa da. Eta idazleak neskato haiek bizi izandako hamaika gorabehera kontatzen ditu.

Bi belaunaldietako bi emakume, amatxi eta biloba; Josefina eta Marie, bi belaunalditako bi gazteren bizitza kontrastea. Honela dio idazleak pasarte batean “Marieri iruditzen zaio zaharrak berez egiten dituztela gauzak, tradizioz edo egin beharrekotan pentsatu gabe, baina aldi berean egin beharren

beharrez jakitun. Mariek mila buelta ematen dizkie bere buruan dituen kezkei, zalantzei, galderei” Batzuek aukera gutxi eta gutxi horiek ezinbestean bete behar, besteak aukera anitz eta aukeratu ezin.

Garaiak asko aldatu dira, baina ez horrela sentimenduak. Paralelismo handia dago bi protagonisten bizitzen artean: maitasun eta desamodio istorioak, festa giroa, drogarekin izandako harremanak, laneko sufrimenduak, gatazka politiko baten ondorengo testuinguru baten ezinak, amatxi eta bilobaren eta alaba eta gurasoen harreman korapilatsuak; bizi minak. Guztia etorkizunaren eta orainaren arteko zubi jolas batean. Eta guztien gainetik laguntasuna eta maitasun harremanak.

Bost parte eta kapitulu ugari ditu liburuak. Oso aproposa dosi txikietan ere irakurtzeko; izan ere, kapitulu bakoitzak badu bere osotasuna. Hamaika gaztek eta ez hain gaztek bere burua islatuta ikusiko du batez ere Marieren pertsonaian. Pintzelkada finez egindako margolan ederra. ■■■

# Surik bai?



MADDI GALLASTEGI OSA

Eguna heze esnatu zen larunbat goizalde hartan, Beran piztu zen sua Endarlatsan barrena zabaldu zenean. Bidasoko suteak lur nafar, lapurtar eta gipuzkoarrak kiskali ditu muga ikusezinetan barrena, dena su eta dena gar. Horrez gain, arratsean hegoak gogor joko omen zuen. Hegoan baina are gogorrago astindu zuen hegoak, Palos de la Fronterako (Huelva) laborarien kokalekua kiskali zuen suak, eta esku hutsik utzi zituen marrubiak biltzeko lanetan zartatutako esku ilunak. Emakume marokoarrek etengabeko bortxa salatu zuten leku berean pizten den bigarren sutea da denbora gutxian, bizirauteko atondutako egur eta kartoizko aterpeez gain, sugarrek 23 urteko gazte baten bizia erre zuten iazko apirilean. Dena su eta dena gar, dena muga eta dena harresi.

Espainiako hegoaldeko muga esperimentu gune bilakatu da aspaldian, deshumanizaziorik bortitzena nola eragin eredu perfektuaren bila. Gogoan dugu oraindik Tarajalgo hondartzako sarraskia, dikea igerian igaro nahi zuten 15 pertsonen gorpuak aurkitu zituztenekoa Ceutako uretan, Guardia Zibilak lurretik eraso egin ostean. Heriotza ardatz duten nekropolitikaren adibide, bizitzak zero balio duen muga horretara eta beste hainbatara Europako

aurrekontuaren % 4 baino gehiago bideratzen da. Migrazio kontrolaren industriara eta mugen militarizaziora. Industria armamentistikora eta abar.

Sentitzeko, pentsatzeko eta ekiteko modu dekolonialak egun tokian-tokian eta globalki era askotara jarduten duten egitura eta muga kapitalista, patriarkal, klasista eta arrazistak desnaturalizatzeko eta desegiteko ahalegin erradikal bezain beharrezkoak dira, paradigma eurozentrikoa erreproduzitu nahi ez badugu, eta zibilizazio ordena auzitan jarri.

Gero eta ke gutxiago geratzen da saltzeko, eta, halere, kez estali nahi dizkigute begiak. Zibilizatu VS. Barbaro logika elikatu nahian bonbardatuko gaituzte behin eta berriz; gomazko pilotaz kalean eta irudi bidez medioetan, hiru pintada eta lau kontainer sutan, baina ez digu berehalakoan begirik erreko. Bitartean batzuk tematzen dira gure iragan katoliko eta koloniala goratzen,

**BITARTEAN BATZUK  
TEMATZEN DIRA  
GURE IRAGAN  
KATOLIKO ETA  
KOLONIALA GORATZEN**

eta euskaldun esploratzaileen omenez egutegia gorriz orbaintzeko proposamenak egiten, esklabotza eta genozidioa 'abenturaz' makillatzen.

Su guztiek ez gaituzte beti eta beti modu berean erretzen, ordea. Ipar Kurdistanen, 1982ko martxoan, bera barruan zela zeldari su eman zion Mazlum Doganek, eta Diyarbakirreko espetxeko altxamenduaren lehen txinparta izan zen hura. Hiru hamarkada geroago autodefentsa unitateek garai bertsuan kanporatu zuten Deir ez-Zorretik Estatu Islamikoaren azken bastioia. Kawa errementaria Dehak tiranoa garaitu zuen erresistentziaren sinbolo da Ekialde Hurbileko herri askorentzat, eta udaberriaren eta urte berriaren atarian, Newroz egunez su txikiek hartzen dituzte Kurdistango txokoak. Su txikiak itsasargi erraldoi izan daitezkeen garaiotan, guk ere badugu zer ospatu.

Muga ikusezin eta ikusgarriak, desboteretze ariketak, guztion posizioak bizigarriago egiteko ahuldu beharreko posizioen berrikuspen eta hausnarketa kolektiboak. Dena su eta dena gar. Erraiak erre eta gure errautsetatik birsortuko gara. Harreman kolonialen inguruko begirada gaurkotzen eta aliantzak eta elkartasun sareak osatzen. ■■■

# Cerrato



JUAN LUIS ROMATET

**I**gande iluntzea. Kabin zerbeza batzuk hartu, eta arratsaldeko zortziak pasatxo direla etxean naiz dagoeneko. Frantsesak bihurtzeko bidean gaude hala jarraitzen badu egoerak. Azken albisteak sartu webean, frigorifikoa zabaldu, eta telebistan Gaur Egun jarrita, afaria prestatzen hasi naiz.

Ohi bezala, pertsona irribarretsu batek eman dio hasiera albistegian kirolen atalari (zergatik daude kirolelakoak beti irribarretsu?), eta halako batean ezaguna dudana ahots bat entzun dut. Athletic-Valentzia partidaren kronika kontatu du azken auskalo zenbat hamarkadatan talde zuri-gorriaren kronista izan denak. Bai, Cerrato zen, Jorge Cerrato. Gaur ere Cerrato hor zegoen.

Afaria irentsi dudana bitartean denboran atzera egin dut, Euskal Telebista sortu zuteneko une hartara. Ez dakit Ikastolan egongo nintzen, edo ordurako Zumaiako Institutura salto egin nuen, baina gogoan dut etxean Euskal Telebistaren lehen emisioetako bat ikusi genuela, Telefunken batean, eta hurrengo egunean eskolara joan nintzela esanaz ETB zelako telebista kate berri bat ikusi nuela. Agian ez zen hala izango, memoriaz ezin delako inor fidatu, eta ni gutxiago nireaz, baina esango nuke hala izan zela, eta ordurako Cerrato han zegoela.

Kirolak bost axola zaizkit, baina Realekoa naiz, eta futbola ezer gutxi inporta bazait ere talde txuri-urdinak irabaztea nahi dut. Hori bai: futbola ez bezala, saskibaloia gustatzen zitzaidan, eta asko, gainera. *Gigantes del basket* aldizkaria ere erosten nuen garai batean, hori esanda nire fama oraindik eta gehiago hondoratuko bada ere. Estatu Batuetako NBA ligako partidak ematen zituen ETBk mundua oraindik lau zenean eta ez nuen norgehiagoka bat galtzen; aurrez grabatutako partidak ziren eta Pedro Mari (edo Potro Mari, lagun batzuek deitzek genion bezala) Goikoetxea zen esataria. Partida hasi aurretik ematen zituen emaitzak kalamitate hark: “Lakersen eta Boston Celticsen arteko partida emango dugu gaur. Los Angeleseko taldeak irabazi du partida...”, zioen kazetariak, eta hemengo hau, ni neu, malaostia ederrean jartzen zen. Emaitza jakinda ere partida ikusten geratzen nintzen. Nire memorian, nire heziketa katodikoan, Jorge eta Pedro Mari, Potro Mari eta Jorge, elkarrekin joan dira beti. Beraz, ausartuko naiz esatera garai hartan ere Cerrato han zegoela.


Eta pentsatzen jarri naiz: nire bizitza ia osoan Jorge Cerrato hor egon bada, nahiz eta okerreko futbol taldearen kronista izan, zer gertatuko da kazetaria, esataria, jubilatzen denean? Ze, adin aldetik, hurbil egon behar du dagoeneko. Cerrato Gaur Egunen ez badago, telebistan bere aurpegia edo ahotsa atzematen ez badut, zer gertatuko da nirekin? Ni egongo ote naiz? ■■■■


**OHI BEZALA, PERTSONA  
IRRIBARRETSU BATEK  
EMAN DIO HASIERA  
ALBISTEGIAN  
KIROLN ATALARI**



# Lehenengo konexioak egiteko prest dago ZOZ sarea

Parolaldeko, Larretxoko eta  
Ardantzabideko etxebizitza eta  
lokaletan martxotik aurrera  
erabilgarri

 [labur.eus/ZOZ](https://labur.eus/ZOZ)

 [zoz@guifi.net](mailto:zoz@guifi.net)

 656 511 916



Zumaiako  
Udala



# Gertu bizi, Gertu erosi!!



Zumaiako  
Udala





# Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2  
943-57 49 86



# BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea      sukaldea  
bainugela      ...  
leihoak      etxeko altzariak

eraberritzekotan?



## Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · [www.biyona.net](http://www.biyona.net)